

• OARSO ASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2024KO
MARTXOAREN 8A
[BIDASOA.HITZA.EUS](https://www.bidasoa.hitza.eus)
[OARSOALDEA.HITZA.EUS](https://www.oarsoalde.a.hitza.eus)
902. ZENBAKIA

«Euskal Herriaren bihotza da Irun»

IDOIA GENUA ALZURI AEK-KO IRAKASLEA
40 urte daramatza Irungo AEKn irakasle.
Euskaraz bizitzea erabaki politikoa dela
uste du, eta Korrika Irundik hasia hiriaren
euskararen alde eragiteko baliagarri
izango dela ziur da // 10-13

Irungo AEK: herritarren
desiotik eraikia, eta
euskara normalizatzeko
tresna // 18-21

Paperik gabekoen
euskara ikasteko
eskubidea
bermatu du AEK-k // 22-25

Hondarribian euskaraz!



Hondarribiko
Udala



• OARSO BIDASOKO •

HITZA


OSTIRALA • 2024ko martxoaren 8a

Oiertzualdeko Hedabideak S.L.ko kideak:

Oiertzun Irratia
Orratz! Kultur Elkarte
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara

eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.
Udalak: Errenteria, Lezo, Oiertzun, Pasaia.

**Argitaratzailea:**

Oiertzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.**Telefonoa:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:

bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus

Publizitatea:**Telefonoa:**

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):

943 30 30 35**harpidetza@hitza.eus**

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

**Iraia Etxebeste Madariaga**

OIARTZUN

Barniz geruzaren teoria

Estreinako aldia dut orriotan gaur, eta badirudi idaztea baino zailagoa dela zeri buruz jardun erabakitzea.

Entrega-epa gero eta gertuago eta larritasuna akuilu, nire interesak arakutzen hasi, eta, besteak beste, barniz geruzaren teoria azaltzen duen liburuarekin egin nuen topo. Eta irentsi nuen liburua, giza harremanen, portaeren eta elkarbizitzaren bueltan sortutako poz, dezepzio, maitasun, gorroto, min eta biolentziaz ari delako; ni txunditzen nauen unibertsoaz eta bertan sortzen diren korapiloez, hain justu.

Tituluan aipatu hipotesiak dioenez, zibilizazioa ez da gizakiaren berezko izate basatia tapatzen duen barniz kapa fina besterik, eta hortaz, azkazalarekin zertxobait harraskatuz gero, ageri-agerian gertatzen da gure alderdi anker eta bihozgabea. Kontrara, Rousseuak zioen izatez onbera dela gizakia, eta gizarteratzearekin batera okertu zela dena.

Iritziak iritzi, egiari zor, badirudi gero eta zailagoa dela gizakia ona dela pentsatzea. Izan ere, historian zehar gertakari askoren bertsio faltsua kontatu zaigu berriaz edo boteredunen zabarkeriaz (kasetari, politikari, polizia...). Era berean, asmatutako hainbat gertakariren errelatoa jaso dugu eta, zoritxarrez, telebista piztu eta elkarren segidan datozen egiazko krimen horiek salbuespena direla azpimarratzea ahazten zaie. Horrela bada, horiek guztiek eragin dute berezko ankerkeriaren ideia sinismen kolektiboan txertatzea eta gainbehera gozela sinestaraztea. Nozebo

efektua gerta daiteke horrela: besteengan ziurtzat jotzen duzuna egia bihurtzea azkenean.

Milaka gertakari bortitz badirela ezbaian jarri gabe, eta esan gabe doa, horiek zuritzeko asmotik oso urrun, uste dut gizakiak baduela ongirako joera, eta horrenbestez, gaiztotasuna ez dela ohikoa, eta badirela baieztapen hori indartzen duten hamaika gertaera eta esperimentu.

Adibide gisa, *Eulien ugazaba* nobela. Goldingek frogatu zuen zenbateko kurdulkeriaz jokatu zezakeen gizakiak, nolakoak diren umeak «benetan». Milioika ale saldu ziren mundu osoan barna. Fikziozko nobela da. Kurioski, hamarkada bat geroago, Aka irlan antzerako gertaera bat jazo zen, benetakoa. Sei gaztetxok, naufragio baten ondoren, urtebetez biziraun zuten, elkarlana eta adiskidetasuna oinarri. Ia inork ez du istorio horren berri.

Ziur asko hori gertatzen da ia beti. Beste modu batera esanda, egoerarik gogorrenean gizon-emakumeen jokaera solidario eta erresilienteena azalaratzen da. Horretan nabarmen huts egiten duena boteredunen estamentua da: eskrupulurik edo errukirik gabeko izaki beldurgarriak, Hobbese (Britainiar filosofoa, 1588-1679) *Leviatanak* deitzen zituen horietan.

Behin lagun batek esan zidan deigarria zitzaiola ikustea nola harritzen nintzen jendearen gaiztotasunarekin. Bistan da barniz geruza hori oso lodi antzematen dudala. Iraun diezadala luzaroan inguruko onena ikusteko gaitasunak. ✕

Euskararen erdigune izango da

URKO ETXEBESTE PETIRENA IRUN

Irungo San Juan plaza ekitaldi historiko asko jasotakoa da. Zabalgunek, irundarren bilgune izateaz gainera, hiriaren historian esanguratsuak diren une asko jaso ditu. Horietako bat, zalantzarik gabe, datorren asteko ostegunekoa izango da: 23. Korrika Irungo San Juan plazatik abiatuko da. Euskararen eta euskalgintzaren epizentro izango da udaletxe aurreko orubea. Helduen alfabetatzean burubelarri hamarkada luzez lanean ari den AEKren sostengurako herri lasterketa aldarrikatzaile erraldoiaren lehen lekukoa han jasoko du norbanako edo eragile batek: ezin zuen bestela izan, Irungo AEK-ko ordezkariak altxatuko dute zerrura lehenengoz ikurrinadun egurrezko euskarria, barruan Baionan hilaren 24an irakurriko den mezu ezkutua duelarik. Hortik aurrera eskutik eskura, herriz herri, pasako dira lekukoa eta Korrikaren emozioa. Sei egun falta dira horretarako.

2023ko azaroaren 16an jakinarazi zuen AEK-k Irunen hasiko zela 2024ko Korrika, 23. Korrika alegia. Irungo AEK-ko kideak aurrez zeuden horren jakinaren gainean. Ez baita nolanhiko lana tamai-

San Juan plazatik abiatuko da 23. Korrika. Lehen lekukoa Irungo AEK-ko kideek eramango dute.

Alaine Aranburu



PORTUKO PILOTUAK

San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com

PORTUKO PILOTUAK - CORPORACION PRACTICOS PASAIA

HILAREN 14ko EGITARUA

na horretako erronkari eustea. Ez bakarrik egunaren izaera eta antolaketa maitzeko zereginengatik. Izan ere, euskaltegikoek argi ikusi zuten Korrikaren irteeraren aurretik eta ondoren hiriko euskalgintzan eragiteko aukera baliatu behar zela, indarrak batu, eta euskarak Irunen duen eragin esparrua zabaltzeko. Ahaleginak merezi izan du.

Azaroaren erdialdeko data horretatik aurrera etenik gabeko saretze lanean murgildu dira Irungo AEK-ko kideak. Hiriko eragileek erantzun dute, egoki. Baita udalak ere. Auzoetan Korrika Eguna egin dituzte, kaleko eta areto barruko hainbat girotze jarduera egin dituzte, Korrika Kulturalakoak barne. Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa ere berpiztu dute. Gainera, euskarak denen hizkuntza izan behar duela aldarrikatu dute, mugarik gabe. Bere sentitu du irundarren zati handi batek Korrika. Euskal Herriaren erdigune izango da ordu batzuek hiria hilaren 14an, fokua izango dute jarrita ehunka milaka

pertsonak. Baina kanporako lan horiek egin bitartean, sukaldeko zereginak asko eta asko izan dira. Horiei elkarlanean aurre egin diete irundarrek.

Festa

Euskalduntzearen aldeko aldarri izateaz gain, festatik asko badu Korrikak. Zer esanik ez hasierak. Horri begira, egun osoko egitaraua antolatu dute Irunen. Ondoko zerrendakoa da. Festa horren muinean izango da HITZA, eta goizetik hirian bizi den giroa lau haizetara zabaltzen saiatuko da hedabidea *bidaso.a.hitza.eus* webgunearen bitartez.

Ostegunekoa aurrera ateratzeko bo-luntarioak eskatu ditu AEK-k. Taldeei dei egin diete aurreikusita dauden zereginetarako izena eman dezaten, euskaltegiaren sare sozialak erabiliz.

Bestalde, kanpotik jende asko iritsiko da Irunera. Garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin bada ere, antolatzailiek jakinarazi dute Ficobako aparkalekua doan erabili ahalko dela. ✕

11:00. Irungo erdiguneko kaleetatik, Korrika Gaztea. Korrika Txikia hilaren 11n izango da, 10:00etan hasita.

11:30. Bertso-poteoa San Juan plaza-tik. Korrikari babesa eman dioten tabernetan egingo dituzte geldialdiak.

11:30. Mutxikoak, San Juan plazan, Txingudiko Pentsiodunen Mugimenduen eskutik.

11:30. Ospitale zaharraren eremuan, Euskal Herriko artisauen azoka.

12:30. Urdanibia plazako txosnak ireki dituzte, hiru orotara. Jateko aukera ere izango da, 12:30etik 15:00etara.

15:30. San Juan plazan, hasierako ekitaldi nagusia.

16:00. San Juan plazatik abiatuko da 23. Korrika. Irunen bira eman ondoren Hondarribiaranzko bidea hartuko du.

17:30. Kontzertuen hasiera Urdanibian: Burrumba elektrotzaranga hasiko da Mosku ingurua girotzen. Ondoren Esne Beltza (19:30) eta Bad Sound System eta Lagunak (21:30) taldeak. Txosnak goizaldera arte izango dira zabalik.





Larraundiko Korrika Egunean, Maddi Sanz AEK-ko kidea eta Tomas Arana auzo elkarteko kidea. Gari Garaialde_BOSTOK PHOTO

Ekosistema euskalduna sortzeko Korrika

Irungo euskaltzaileen arteko saretzean arrastoa uzteko abiatuko da 23. Korrika Bidasoko hiritik. Errepikaezina nahiz historikoa izango den irteera memorian geratzea baino, geroan segitzea nahi du AEK-k.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN

Azaroaren 16an iragarri zuen AEK-k Irundik Baionarat izango dela 23. Korrika. Orduetik, lau hilabete igaro dira, eta dagoeneko aste bat baino gutxiago falta da Irungo San Juan plaza euskaltzaileen foku bilaka dadin. Emozioz betetako momentua izango da, inoiz errepikatuko ez dena. Maddi Sanz Korrikaren hasieraren koordinatzailearen esanetan, datorren osteguneko «herririk gabe» ez zen lortuko egitea.

Urtarriletik Korrika Kulturalaren barnean hamaika jarduera egin dira, eta hilaren 14koari begira egun osoko egitaraua prestatu dute herritarrekin. «Eran-tzuna zoragarria izaten ari da». Urduri egoteko egunak dira datozenak, eta herritarrek ere hala daudela nabari du Sanzek: «Atzera kontua hasi da, ez guretzat bakarrik, herriarentzat ere. Nabaritzen da jendea gogotsu dagoela. Ahalik eta ondoen marraztu dugu eguna. Herriaren aurkezpena prest dugu».

San Juan plazan eta Moskun izango dira martxoaren 14ko bi gune nagusiak. Eguneko erronka nagusietako bat, egitarauko jarduerak bata bestearekin ez bat



egitea izan dela azaldu du Sanzek eta baita lortu ere: «Ez genuen nahi Korrika Irunen zegoen bitartean beste ezer egotarik». Bestalde, Korrika hiri batetik irtengo den lehen aldia izango da, eta kudeaketan ez dago zeinekin alderatzerik. «Zentzu horretan zail egin zaigu. Dena biderkatzen ari gara. Amurrión, adibidez, eskolakoak joan ziren laguntzera. Baina Irunen hamaika eskola daude, eta desberdina da», zehaztu du.

Irun euskaltzalea, prest

Irungo AEKrentzat garrantzitsua izan da herriari azaltzea «zergatik Irundik eta Irunen», helburua ez baita izan Korrika Bidasoko hiri nagusitik irteteko ahaleginak egitea, baizik eta herriko euskaltzaleen hondon arrastoa uztea. Sanzek gogorazi du horretarako momentua zela pentsatu zuela AEK-k Irun irteera leku hautatzerakoan: «Irunen nabaritzen genuen euskalgintza ahulduta ez, baina sakabanatuta zegoela, eta Korrikak batu ahalko zuela pentsatu genuen. Korrika Kulturalak emandakoa ikusita uste dut bide onetik goazela, baina beste zentzu batean ez ditugu konparazioak egiteko baliabideak».

Korrika Kulturalako balorazioa ere egin du Sanzek. Azaldu du Irunek «euskarako aisia eta kultura» eskatzen dituela. «Korrika bukatzerakoan balorazioak etorriko dira, baina herri honek badauka indarra. Badauka mamia benetako ekosistema euskalduna sortzeko. Kultura eta aisia izan ahal dira horretarako giltzak. Izugarria izaten ari da».

Jarduera guztiak gauzatzeko udalare-

kin harremanetan aritu dira eta, oro har, elkarlana «egokia» izan dela adierazi du Sanzek. Kultura arloarekin izan dira zehazki, eta erritmoen kasuan bederen «elkar egokitu» behar izan direla aipatu du. «Esango nuke puntu batean sintonia bat badagoela, nahiz eta helburu ezberdinak izan ditzakegun».

Guztira 56 kilometro saldu dira Irun eta Hondarribia artean, eta Sanzek aitortu du ez zutela «hainbeste espero». Kilometroak metroak izango badira ere, guzti-guztiak hunkituta eramatekoak izango direla ziur da. Santiago zubikoa aurten ere «oso berezia» izango dela aurreratu du, inolako pistarik eman gabe zer den bertan gertatuko dena. Dena den, historikoa izango dela argi dago, betidanik Irungo eta Hendaiako AEK-rena izan baita kilometro hori, eta aurten ez da hala izango.

Horrez gain, Mosku Euskalduna izeneko kilometroa egingo da Uranzu kaleetik Moskuko plazara. Horretarako, Moskuko hainbat eragile euskaltzale batu dira, «kilometro koloretsua» izateko. Auzo historikoko euskaltzaleak batu izana ez da ausazkoa izan: «Azkenean, Mosku bada Irunen ispilu bat kanpora begirakoa, eta bada euskal munduarekin lotzen den zerbait. Batzuetan, baina, badago sentsazioa Moskun ere euskara ez ote den ari galtzen, edo behintzat albo batera uzten konturatu gabe». Bada, euskaraz bizi den herria badagoela erakutsiko du Moskuko kilometroak. Irun, beraz, tik-takari begira prest dago Euskal Herri osoari Harro Herri dela tipi-tapa kontatzeko. ✕



A. Aranburu

MATTIN SORZABALBERE

Erromeria ibiltaria egin zen hilaren 3an Irunen, Korrika Kulturalaren barruan. Hasieran planteatutako ibilbidea laburtu egin behar izan zuten eguraldia medio, eta Moskuko plaza-tik Dunboara joan ziren. Jende andana bertaratu zen Irungo kaleetan kantatzera eta dantzatzera. Korrika Kulturalak jaso duen harrera beroa jaso zuen erromeriak ere bai.

Dunboa HLHI ikastetxean bukatu zen ibilbidea, eta bertan, Irungo AEK-ko Beñat Alzaga zuzendariak hitza hartu eta Mattin Sorzabalbere AEK-ko eta Korrikaren militante historikoa omenduko zutela azaldu zuen, Korrikaren antolaketan egindako ekarpenagatik, urtez urte lanean aritzeagatik. Agurra dantzatu eta abestu zioten omenaldian.

Erromerian eta omenaldian parte hartu zutenak honakoak izan ziren: Meakako Adixkideak; Txorimaloak taldea; Kemen Dantza Taldea; Eraiki Dantza Taldea; Meaka Dantza Taldea; Landetxa, Elatzeta eta Lagun artean elkarrekin; Atzokoak, Nartartenea eta Ametsa abesbatzak; EKT; eta Maite Mutxiko taldea.

• Haur eta helduentzat
Terapia Estrateziko Laburra

• Banakako, bikote eta
familla terapia

**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa CZ 1579
Xenpelar kalea 6. solairuartea,
5. bulegoa. Errearteria
www.jakobepsikoterapia.com

Elkartu Abotsanitzekin
Gabarrari kaleko 22an
(aireportuko bus geltokian)

martxoaren 14ean, 16:31tan

abotsanitz



ILUSIOA

HITZA

2023ko azaroaren 18an. 2023ko azaroaren 16an iragarri zuen AEK-k 23 Korrika Irunen hasiko zela. Handik bi egunera, azaroaren 18an, talde argazki handia atera zuten hiriko eragile-ek. Ilusio sentsazio ukaezina plazara atera zuten.



IRUNGO AEK



OMENALDIA

KORRIKA

Urtarrilaren 25ean. 23. Korrikak urtarrilaren 25ean Azterketak Euskaraz taldea omendu zuen Hondarribiko Itsas Etxean. Ipar Euskal Herrian Baxoa eta Brebeta azterketak euskaraz izan daitezen borrokan ari da kolektibo hori.

KORRIKA EGUNAK

Auzoetan. Irungo Korrika Batzordeak auzoetara eraman du asteotan Korrikaren zirrara. Urtarrilaren 10ean Korrika Eguna egin zuten Katea auzoan, otsailaren 24an izan zen Larreaundi-koa, eta hilaren 2an egitekoa zen Santiagokoa atzeratua izan da eguraldiagatik. Emozioa auzoetara ere iritsi da.

JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO
GESTIOAK

→ www.jakinservicios.com ←

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa. Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxa: 943 51 60 04



BATZORDEAK

OROITZENE AEK

Oarsoaldean eta Bidasoan. Korrika ez da egun eta ordu jakin batean pasatzen den martxa aldarrikatzaile eta euskaltzalea. Egitasmoaren barruan antolatzen direnak asko dira. Horien arduradun Korrika Batzordeak dira. Lezokoa da irudikoa.



LEKUKOAK

Egoitz Segura

Oarsoaldean eta Bidasoan. Hilaren 14an Bidasoan eta 23ko gauean Oarsoaldean ehunka izango dira 23. Korrikaren lekukoak eramango dituztenak. Antxon, lekukoaren eramaileen talde argazkia egin zuten hilaren 2an.



HITZ GURUTZATUAK

Imanol Saiz

Hilaren 2an. Harro herri da 23. Korrikaren leloa. Harrotasun hori Irunen egin zen Euskal Herriko IX. Hitz Gurutzatuen Txapelketan ere sumatu zen, Korrikaren testuinguruan Aitzondok antolatua. Mayi Iza hondarribiarra, garaile.



DENENA

Ikerne Zarate

Hilaren 4an. Denena da. Korrikaren aurretik izaten dira Korrika Txiki eta Gazteak. Baita adinekoenak ere. Hilaren 4an Gazte Izanen Korrika egin zuten Errenteria-Oreteran, Duintasuna elkartearen ekimenez. Emozioak ez du adinik.



amets sukaldeak

sukalde eta bainugela estudioa




Zubitxo 15, behea
20100 Lezo
t. 943 341678
ametssukaldeak@gmail.com
www.ametssukaldeak.com

dica. banatzailea
www.dica.es



I. Saiz

“Harro herri honetan badago harrobia, indartsua oso”

IDOIA GENUA ALTZURI AEK-KO IRAKASLEA

Bizitza oso bat eman du Irungo AEK-ko irakasle bezala. Ostegunerako irrikaz da, aurtengoa «ahaztezina» izango dela ziur da. «Aldarrikapen eta festa egun biribila» izango dela dio.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA IRUN

Aurtengoa 40. ikasturtea duzu AEKn irakasle bezala. Begirada atzera botata, nolako bilakaera izan du AEK-k?

Egia esan hainbeste urte pasa dira, ez dudala pentsatzeko tartetik atera ere. Azkar pasatu dira urte hauek guztiak, eta orain konturatzen naiz zein talde sendoa dagoen gaur egun. Gazte hauek ikustea nola mugitzen diren, zer martxa duten, nola antolatzen duten... Zer sentitzen duzan? Lasaitasuna. AEKn hasi nintzenetik pixkanaka-pixkanaka egunak, hilabeteak eta urteak pasatu dira eta honaino ailegatu gara. Eta orain ikusten dut, lekukoa tartean dugun honetan, transmisio hori berमतuta dagoela, eta ongi berमतuta gainera. Eta horrek sekulako poza emateaz gainera, lasaitua ere ematen du. Denok dakigu AEK ez zela sortu ez dakit zenbat urtetan irauteko asmotan. Izan ere, AEK proiektua bera ere desagertzeko asmo-

tan sortu zen. Eta momentuz, horretan segitu beharra dugu.

Beraz, ezinbesteko izaten jarraitzen du AEK-k gaur egun ere.

Tamalez bai. Baina zorionez talde sendoa dugu. Harro nago, batez ere AEKn eta inguruan dagoen jendearekin. Harrobia badago zorionez, harro herri honetan harrobia badago, indartsua oso. Eta noski, hori egunez egun erakusten ari dira. Lanean ari dira inurriak bezain indartsu, isil-isilik, gauza guztiak prestatzen. Hilaren 14rako dena prest dute. Dena zoragarri ateratzen ari da. Beraz, horrek esan nahi du talde ona dugula, etorkizuna izango duena ziur.

1980ko hamarkadako AEK, eta oraingoa. Asko aldatu da?

Uste dut dinamikak ez direla asko aldatu, kontua da orain ja profesionalizatu egin dela nolabait. Ni hasi nintzanean AEK izaera hartzen ari zen. Jende asko gau eskolatik zetorren, eta haiek beste ofizio batzuk zituzten. Pixkanaka profesionalizatzen joan ginen, gaur egun AEK dena egituratzen hasi ginen. Tipologia eta helburua pixka bat aldatu direla esango nuke. Esan nahi dut, garai hartan jendea euskalduntzera edo berreuskalduntzera etortzen zen gehienbat. Orduko egoera oso ezberdina zen, noski. Eta gaur egun, badago euskalduntzera datorren jendea baina badago tituluen presio hori, euskarazko tituluak eskuratzekoa. Baina hortik harago, zorionez, ikusi dut AEKra etortzen den jendeak ikusten duela euskararen bitartez oso mundu zabala irekitzen zaiela. Orduan, ez da horretara mugatu behar. Hau ez da las-

terketa bat, eta C1 edo C2 ateratzeko buru-belarri aritzea bakarrik. Prozesua gozatu behar da, hizkuntza ezagutu, maitatu eta maitatu. Garai batean esaten zen euskara ez zela maitatu behar, hitz egin behar zela baizik, eta gaur egun ikusten dut maitatu ere egin behar dela, eta pixka bat zaindu.

Borroka luze eta gogorra izan duzue AEK-ko kideek, hortaz.

Lehen urteak, zailak ez dakit, baina borroka egiteko urteak izan ziren, bai. 17 urterekin hasi nintzen AEKn, pentsa. Alfabetatze maila egiten hasi nintzen. Sekulako giroa zegoen garai hartan, eta Irun oso bizia zen alor askotan, musikan esaterako. Zorionez, orduan izan genituen gerora musikari handiak izango zirenak AEKtik gertu. Euskaldundu egin ziren talde asko, hor izan genituen, besteak beste, Antiregimen, Vomito edo Kortatu. AEK izan zen ikaragarritzko mundu bat zabaltzea jende askorentzako. Haize freskoa ekarri zuen AEK-k, erabatekoa. Eta esan bezala, erreferen-

tzia berri asko ekarri zituen. Askotan ematen zuelako euskara, bertsolaritza bezala, zaharren kontua zela, edo nolabait etxean gorde beharrekoa, ikastolan erabili beharrekoa, baina bestelako kon-tuetarako ez. Gaur egun beharbada aldatu egin da hori. Lehen musika, esaterako, hizkuntza jakin batean entzun behar zen, eta euskaraz bertsolaritza eta horrelakoak ziren bakarrik. Hertzainak taldeak berak esaten zuen: *bertsolaria edo trikitilaria izan behar al duk euskalduna izateko?* Hori guztia izan zen, haize freskoa, panorama berri baten aurrean jarri gintuelako. Ekosistema oso bat izan zen, egia esan. Eta gaur egun fruitu horiek ikusten dira. Gauzak aldatu dira, zorionez. Borroka luzea izan da, baina bilakera handia izan du AEK-k eta euskarak. Bakoitzak bere alorretik erein egin du eta segitu du horretan, eta fruituak ikus daitezke gaur egun.

Korrika Irundik abiatzeak, zer suposatzen du hiriarentzako eta irundarren-tzako?

OLAGARRO KULTUR ELKARTEA

Olagarro ere, HARRO!





I. Saiz

Jakin nuenean *flipatu* egin nuen, ez nuen espero. Gainera, kontuan hartu behar da orain arte herri txikietatik atera izan dela Korrika, biztanle kopuru jakin bate-tik beherako herrietatik abiatu da beti. Gureak begira zenbat biztanle dituen, eta zein dimentsioa duen Irunek. Iruditzen zait erdigune horretatik ertzetara ekartzea eta horrelako herri handietara ekartzea oso onuragarria izango dela guztiontzat, ez soilik irundarrentzat. Nik beti diot Euskal Herriaren bihotza dela Irun, oso leku estrategikoan bizi gare-lako. Oso pozik nago hemendik aterako delako, eta pentsatzen dut sekulakoa izango dela. Nire kideek esaten duten bezala, ahaztezina izango da ziur, argi dut hori.

Furgonetaren zain egon beharrea, arrankada bizituko duzue datorren astean. Une magikorako prest zaudete?

Oso berezia izango da, beste modu batera biziko baitugu, lehen aldiz gainera. Festa egun handia izango da, goiz-goizetik abiatuko duguna. Arratsaldean abiatuko da Korrika San Juan plazatik. Espero dugu jende asko etortzea. Egun osoko ekitaldiak izango ditugu. Eta ezin ditugu ahantzi orain arte Korrikaren harira egindako guztiak. Kateako Korrika Eguna kolosala izan zen, Larreaundikoa ere mundiala izan zen. Aurreko asteburuan Santiagokoa egitekoa zen baina eguraldiagatik bertan behera utzi behar izan genuen. Baina Korrikaren harira Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa egin genuen, Aitzondo Euskara Taldeak antolatuta. Eta asmoa da txapelketa honekin jarraitzea. Beraz, ikusi dugun be-

SINDIKATU
 KAXUELITAK · PINTXOAK
 PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
TABERNA
 Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta

Beerlagun  **GOAZEN KORRIKA!!**
 www.oarsoak.com
 UGALDETZO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
 TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

LITZIAR
 EDERGINTZA
 26 urte zuekin!
 Santusene kalea, 5, behea.
 Oiartzun. Tel: 943 49 39 81

zala, Korrikak horretan ere eragiten du. Esan nahi dut, Korrika ez da egun bakarrekoa. Korrikak gauza asko aldarrikatzen ditu, eta horiei ikusgarritasuna emateko eta azalera ekartzeko ere bide polita da. Harrera Sarearekin egindako *Hizkuntzak mugarik gabe* ekitaldia ere ederra izan zen. Eta hor aldarria zein zen? Irregulariki bizi direnek euskara edo bertako hizkuntza ikasteko erabateko eskubidea dutela. Beraz, borroka asko barnebiltzen ditu Korrikak, eta horregatik ere egitasmo oso garrantzitsua dela uste dut. Hemengo errealitateari ikusgarritasuna eman zaio Korrikari esker.

Korrika guztiak (edo ia guztiak) bizitu dituzu. Gogoan duzu lehenengoa?

Ahaztezina izan zen. Nire lehenengo Korrika 1982koa izan zen, ederki gogoratzen dut. Ikastolako lagunekin joan nintzen, orduko kamiseta etxean dut oraindik gordeta. 14 bat urte izango nituen. Egun horretan esan nuen: baina zer da hau? Askok harritu ninduen. Orduetik anekdota asko gogoratzen ditut.

«Korrikak gauza asko aldarrikatzen ditu; borroka asko barnebiltzen ditu»

«Haize freskoa ekarri zuen AEK-k, erreferentzia berri asko ekarri zituen»

Dena den, lehena balira bezala bizitzen ditut guztiak. Urduri nago, eta nahiago dut eguna iritsi arte ez pentsatu [barrez]. Irrikaz gaude denok.

Korrikaren agertoki nagusia Irun izateak irundarren artean zer nolako eragina izan dezakeela uste duzu?

Korrika zalantzarik gabe pizgarri bat da, eta uste dut kontzientziazteko baliagarria dela. Azken batean euskaraz bizitzea erabaki politikoa da. Euskaldunok erabakitze aukera dugu, erdaldunek

ez bezala. 35.000 lagunetik gora euskaldunak dira Irunen, beraz, asko dira euskaraz egiteko hautua egin dezaketenak. Ez dut zama guztia euskaldunon gain utzi nahi, baina uste dut ardura handia dugula. Erabaki politikoa den heinean, zorioneko gara euskara eta gaztelania gutxienez baditugulako. Administrazioek, noski, ardura dute, haien ardura da Euskal Herrian bertako hizkuntza denez, euskaraz egiteko berme guztiak jartzea, baina hori iristen zaigun bitartean oso bide luze eta nekeza dugu aurretik. 35.000 lagun horiek hautatu beharko dute nola bizi nahi duten. Kontzientzia iristen da momentu jakin batean, eta horretarako erreferentziak beharrezkoak dira. Eta erreferentziak behar ditugu arlo guztietan, bai musikan, literaturan, hedabideetan... Eta Korrika ere izan daiteke erreferentzia bat kontzientzia hori lortzeko. Beraz, herritar oro animatu nahi dut hilaren 14ko aldarrikapen eta festa handira, egun biribila izango baita. ✕



23. Korrika. Erronka zaharrak, erronka berriak

Patxi Azparren Olaizola

TXIRRITA AEK EUSKALTEGIKO IRAKASLEA

Heldu den hilaren 23an, 23. Korrika iritsiko da gure eskualdera. Hilaren 14an hasiko da Irunen. Ohi bezala harrera ezin hobea egingo diogu Oarsoaldeko herritarrok, eta egun betez, euskara izango da nagusi hainbat eta hainbat kaletan.

Gogoratzen ditut hasierako Korrika deialdiak. Umetan, garai hartan, ez genituen ondo bereizten Kilometroak, Ibilaldia, Korrika, Bai Euskarari... Deialdi guztietara joaten ginen gogotsu. Denak erakargarriak ziren, guztiak baitziren berpizten ari zen herri gazte eta indartsu baten adierazpen kementsuak.

1980an izan zen lehenengo Korrika. Erabat originala izan zen proposamena; Euskal Herri osotik lasterka ibiltzea egunez eta gauez, gelditu gabe, lekuko batean ezkutatuta zegoen mezu *sekretu* bat eramateko, eta gainera, korri egiteagatik ko-bratu beharrean, ordaintzen. Bitxia benetan.

44 urteren buruan batek baino gehiagok galdetuko luke ea zergatik oraindik hau bezalako ekitaldiak egin behar diren. Gogoan dut, behin, Bernardo Atxagak berak galdetu zuela ea zergatik euskaldunok *zergak* bitan ordaindu behar genituen. Izan ere, ekimen askotan euskalgintza eta euskal kulturgintza diru eske ibiltzen gara, beti eskale. Oraingo honetan ere euskal herritarren eskuzabaltasuna dugu aurrera egitiko ezinbesteko bultzada, euskara

ikasteko finantzazioa ez baitago ziurtatuta. Herri ekimen erraldoi honen bidez eskuratzen den dirurik gabe milaka herritarrek ezin izango lukete euskara ikasi.

Normalizazioa

Sarritan galdetu izan diet ikasleei ea zer den euskararen «normalizazioa». Ikasleen erantzun sorta koktelera sartutakoan, ni behintzat ondorio honetara iritsi naiz. Euskararen normalizazioa zera da: euskara berriro ohiko hizkuntza izatea. Eleanizta-

Gauzak aldatu dira, eta errotik. Aldiz, aldaketa gehienak ez dira gertatu gehienok uste genuen bidetik.

sunean, mundu aldakorrean eta dinamikoan, baina egunerokotasunean kalean, etxean, ikastetxean, lantokietan ohiko hizkuntza izatea. Kultur ezberdinen arteko herritarren arteko zubi-lana egin dezakeen tresna dugu euskara.

Jauzi kualitatiboa, erabilera, eta ezagutza unibertsala

Euskara batuak 55 urte egin ditu, euskararen aldeko herri ekimen gehienek eta ikasletolek ere beste horrenbeste. Gure burua duela bost hamarkadako une horretan kokatuko bagenu, ziurki ia-ia ez genuke gure

burua ezagutuko. Herri gazte bat, itxaropenez beteta, eskualde askotan euskararen ofizialtasuna lortu berria, euskaltegiak lepo. Horietako ikasleren bati galdetuz gero, euskara bi hamarkadatan «normalizatua» egongo zela erantzungo zuen.

Egun, berriz ere, jauzi kualitatibo bikoitz baten premia dago, hots, euskararen gutxieneko ezagutza unibertsala lortzea, eta erabilera-tasa handitzea

Euskara, harrera ona

Arestian esan bezala, gauzak aldatu dira, eta errotik. Aldiz, aldaketa gehienak ez dira gertatu gehienok uste genuen bidetik. Inork ezin zuen aurreratu zein urte gutxitan hain sendoak ziren erreferenteak horren azkar eror zitezkeenik.

Etorkizuneko Euskal Herria Oarsoaldea bezalako eskualde konplexuetan eraikitzen ari da. Mugimendu demografiko handiak, aldaketa soziokultural eta ekonomiko itzelak eman diren tokietan gorputzen ari da Euskal Herri berria, eta horrekin batera, erronka berriei erantzuteko premia.

Euskararekin harrera ona egiten diogu etorri berriari, euskarak begi-

rada berezia ematen dio hemen bizi den orori; euskarak aberatsen gaitu pertsona gisa eta herri gisa.

Korrikak gure historiaren fase berri honetan, egun batez, astebetetz, parte hartze-ko aukera ematen digu, eta gonbidapen bat ere eginez: 365 egun euskararen eragile izan gaitezen, urte osoan Ahobizi eta Belarriprest izan gaitezen.

Euskarak egiten gaitu herri. Egin dezagun herria, joan gaitezen korrika martxoaren 24an, eta urte osoan ere, euskara Oarsoaldean eta Euskal Herrian ohiko hizkuntza izan dadin arte. ✕





AER
KOR

ALDARRI BAT EUSKARARI

Eman gorputzari hizkuntza bat
bizia, egunerokoa, noranahikoa.
Eman astindu bat gorputzari
hitzari, hizkuntzari, euskarari.
Eman hizkuntzari astindu bat,
lasterka, pausoka, korrika.

OIHANA ARANBURU BALERDI

Hondarribia



rika



A. Aranburu

“AEK heldu zenerako bazegoen mugimendua”

JOXAN ELOSEGI ARREGI
ITZULTZAILEA

Irungo AEKren aurretik hirian helduentzako euskara eskolak bazeudela jakinarazi du Joxan Elosegik. Horien bilakaeraren errepassoa egin du. AEKren aurretiko mugimendua handia izan zen.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN

AEK 1976an sortu zen Bilbon. Irungoa, geroago. Zertan ari ziren euskaltzale irundarrak garai horretan?

1973an, 18 urte nituela hasi nintzen mugimendu horietan. Orduan ez zegoen AEKrik, eta aurreko hamarkadan, 1960. hamarkadan, baziren euskarazko eskolak. Gau eskolak deitzen ziren, eta 1967an sortu zen lehena Irunen. Eskola

horiek Irungo hainbat tokitan ematen ziren, sakabanatuta zeuden ikasgelak, baina batez ere, Irungo OARGUIn ematen ziren. OARGUI elizarekin lotuta zegoen elkarte bat zen, eta lokal handi bat zuten San Migelgo Pasionistak elizari lotuta, duela hogeitun urte bota zutena. Irakasle lanetan pasiotar gazte batzuk aritu ziren, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, eta 100 ikasletik gora biltzen ziren bertan. Kontuan hartzeko zenbakia da. Noski, gau eskolak izenak dioen bezala, klaseak lana bukatzerakoan ematen ziren. Esan beharra dago ikastolak indartu ziren aldi berean hasi zirela gorpuzten gau eskolak.

1970. urtean Burgosko epaiketa iritsi zen, eta haren ondotik urte pare batez hutsunea egon zen. Gerora, hiru urte geroago, berriro indartu ziren euskara klaseak eta 1973an hasi ginen berriro. Bereztasun handiena izan zen hasi ginela Gipuzkoako beste mugimendu edota gau eskoletako kideekin koordinatzen. Euskalduntze eta alfabetatzerako bulego bat zuen Euskaltzaindiak Donostian, eta haren bidez hasi ginen koordinatzen.

Metodoa ere beharrezkoa zen, eta eskolen metodo nagusia Patxi Altuna-

ren *Euskara, hire laguna!* izan zen. Seguru jende askok ikasi zuela metodo horrekin. Ez zen puntakoena edo dinamikoena izango, baina bere funtzioa bete zuen urte horietan. 1970eko hamarkadan beste ikuspegi bat eta beste metodo batzuk lantzen hasi ginen. Hala nola moldatzen ginen, baina oso mugimendu dinamikoa zen. Frankismoaren azken urteak ziren eta *Jalgi hadi* eta *Euskalduntzen* metodoak etorri ziren, beste dinamismo batekin. Udalarekin ez genuen harremanik, baina Irungo eskolekin bai, eta eskoletako ikasgelak baliatzen genituen gau eskoletarako, adibidez, La Salle, El Pilar baina baita eskola publikoak ere. OARGUIn ere segitu genuen.

Frankismo ondorengo urteetan, zein izan ziren segitutako urratsak?

1975an hil zen Franco, eta 1976an izan zen eklosioa. Ikasturte berriari ekin genion eta ia 600 pertsonak eman zuten izena. Gela bakoitzeko 12 bat ikasle izan ziren, 50 bat talde osatu ziren, eta 52 irakasle behar izan ziren. Ahal izan genuen moduan pasa zen ikasturte hura. Nahiko trantzea izan zen, ez zegoelako jende nahikorik hori guztia kudeatzeko. Gainera, urte oso zailak ziren, baina denak elkartzen ginen.

Ikasleei dagokienez, gehienak euskara hizkuntza ikasi nahi zutenak ziren, edota euskara etxean txikitik aditua zutenak, baina hitz egiteko aukera izan ez zutenak. Baziren ere besterik gabe alfabetatzea behar zutenak; gaur egun zaila da profil horretako jendearekin topatzea. Zalantzas betetako urteak izan zi-

ren, eta zoritxarrez, ezin izan genuen behar bezala erantzun, ahal genuena egiten genuen. Ilusioa handia zen, baina ez ginen prest. *Impasse* urte batzuk izan ziren orduan, eta garai berdinean, 1978an sortu zen AEK Euskal Herrian.

Eta nola iritsi zen Iruneraino?

AEK Bilbon sortu zen, eta Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea izenez Euskal Herri osoan lehen ikasturtea 1978an izan zen. Esaten delarik 1976an sortu zela, ez dut bat egiten.

Orduko hartan gau eskola ginen Irunen eta gero, Gipuzkoan koordinatzen hasi ginelarik, Euskal Eskola izena hartu genuen, Gipuzkoan hala egin zelako. AEKren sorrerarekin batera, 1979an, esan daiteke segida eman zitzaiola gau eskolen mugimenduari, beste nortasun eta izen batez. AEK izena guri ez zitzaigun bat ere ez gustatzen, Bilbo aldetik

etorri zen, eta hartu egin genuen. Dena den, inportanteena eta azpimarragarriena da AEK ez zela Irunera etorri. AEK heldu zenerako bazegoen mugimendua. Ikastolak ere ez ziren kanpotik etorri, bertan sortu ziren. Bertan sortu ziren mugimenduak eta ondorengoak, bertako behar bati erantzuteko.

Beraz, 1979tik aurrera hartu zuten orduko euskal eskolek Irungo AEK izena?

Bai, Irungo euskal eskolak ordutik Irungo AEK izan zen. Eskolak egun osora zabaltzen hasi ginen, hau da, goizeko eskaintza egiten hasi ginen. Ez genituen 500 edo 600 ikasle 1976an gertatu gisan, baina bagenituen, beharbada, 300 ikasle. Guztiz urte garrantzitsua izan zen Irungo AEKren historiarentzat.

Errepublikatuko dut, baina AEK aurretiko mugimendua jada bazegoen. Jendea bazebilen. AEKren hastapen horietan



KIRIKOKETA
harro! Aialde, I
Oiarzun
943 26 07 78



Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte
Barne Diseinua
HARRO HERRI
Santxoenea 31, Erretera, 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com



Aiton-Etxe
EGUNEKO ZENTROA
DIPUTAZIOAREKIN
HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK
ERE BADITUGU
943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

*kundik,
Baionara,
harro herrit!*

beste behar batzuk genituen, eta beste kontzeptu batzuk hasi ginen garatzen, esaterako, *euskaltegi* kontzeptua. Guk klaseak emateko erabiltzen genituen ikasgelak oso sakabanatuta zeuden, eta euskaltegi kontzeptua, alegia, euskara ikasi nahi duten helduentzako topalekua sortu zen. Kakotxen artean aipa daiteke profesionalizazioa ailegatu zela, profesioaren duintasunik ez zegoelako. Irakasle izatetik bizi zen jendea ari zen sortzen, oso modu prekarioan. Irungoak ziren asko, Irunen bizi ziren euskaldunak beste asko.

Zein izan zen egoitza?

Atzera bueltatuta, 1977an lortu genuen

«Lokala okupatu genuen eta hori oso garrantzitsua izan zen, oso leku gutxitan gertatzen zelako»

gela bat Foruen karrikan, Euskal Jaiak jardunaldien antolatzaileen egoitzan. Era horretan, irakasle taldea gero eta finkoagoa zen, eta metodologia nahiz didaktikan aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren. Guk kolaboratu egin genuen Euskal Jaietan, eta haiekin batera txoko bat egitea lortu genuen. Guretzat arras inportantea izan zen, gure izenean bage-

nuelako toki bat matrikulak eta bestelakoak egiteko. Alegia, erreferentziazko gune bilakatu zen. Oraindik gau eskolak ginen, eta lehen zehaztu bezala, 1979tik aurrera AEK. Euskaltegia ginelarik beste ezaugarri batzuk genituen, bestelako irakasle talde bat. 1980an izan zen lehenengo Korrika, eta 50 kilometro egin behar izan genituen Irun eta Hondarribia artean. Lan izugarria izan zen.

Udalarekin ere hasi ginen harremanetan garai hartan. Lehen udal hauteskundeak baino lehen gestorak zeuden, eta haiekin hasi ginen harremanetan. Lehenengo aldiz lortu genuen diru laguntza udaletik, Julen Elgorriaga buru zelarik, eta urte horretan ere hasi ginen ematen lehenengo urratsak udaleko langileak euskalduntzeko. Bitartekotza nahiz baimenak eskuratu genituen, euskaldundu nahi zuten udal langileak dohainik hartzearen truke. 1978an Irungo AEK-k lehen barnetegia antolatu zuen Zubietan (Nafarroa), Joxeparen etxean. Bi urtez antolatu zen, eta Euskal Herriko lehenengotako barnetegia izan zen.

Noiz finkatu zen AEKren egoitza?

1980. urtean udalak udal euskaltegia sortu zuen eta sekulako erronka izan genuen gure aurrean. Sortu berria zen HABE, eta hasierako harremanak halanolakakoak izan ziren. HABEn zebiltzanak gurekin ibilitakoak ziren, eta haiek beste lan baldintza batzuk eta erraztasun batzuk zituzten. 1980. urtean Foru karrikako 2. zenbakiko eraikina okupatu genuen, Seccion Femenina talde falangistaren egoitza zena. Hantxe jarri ginen, eta han egon ginen 15 bat urtez. Dena hor egin genuen. 1981. urtean udalak pisua erabiltzeko baimena eman zigun, berea ez bazen ere. Udaleko Patxi Zapiainek lagundu gintuen ere, eta haren bidez udalak pisua txukuntzeko baliabideak eman zizkigun. Udal euskaltegia eratu berri bazuten ere, Zapiainek euskara bultzatu eta lagundu nahi zuen, nahiz eta borroka giroa zen bi euskaltegien artean nagusi.

Lokala okupatu genuen eta hori oso garrantzitsua izan zen, oso leku gutxitan gertatzen zelako. Leku askotan ez zuten lokalik, eta ez baduzu lokalik zer egin behar da? Okupatu. ✕

Iñigo eta Fermin Muguruza AEK-ko beteranoak bilakatu zirenekoa



ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN

19. Korrikan lekukoa eraman zuen Fermin Muguruzak. Rebeka Ruiz

Kortatuk 1985ean kaleratu zuen bere lehen diskoa, *Kortatu*. Gaztelania hutsean landutako diskoa izan zen, bi abesti kenduta: *Sarri Sarri* eta *Zu atrapatu arte*. Fermin eta Iñigo Muguruza letragileek euskaraz ez zekitenez, bi kanta euskaratzeko laguntza jaso zuten urte hartako uztailean Irunen jasozten ari ziren eskola intentsiboetako irakasleengandik. Dena «oso berezia» izan zela du gogoan Fermin Muguruzak, urte hartako uztailaren 7an Joseba Sarrionandiak eta Iñaki Pikabeak Martuteneko espetxetik ihes egin zutelako.

Kortaturi uda hartan egin zizkioten elkarrizketetan haien «intentzioa eta hautua» euskaraz abestea zela iragarri zuten. Baina, horretarako, euskara ikasi behar eta ezin, Kortaturekin kontzertu pila bat ematen ari zirelako. 1986. urtea ailegatu, eta uztail horretan ere klase intentsiboe-tan aritu ziren. «Baina, klaro, urtean zehar ez genuen ezer egiten, taldeagatik ez

zegoen gelditzeko modurik», gogoratu du Fermin Muguruzak. Orduan, 1987an Gazteluko barnetegira joatea erabaki zuten Iñigo eta Fermin anaiek.

Hilabete bat pasa zuten han, eta irakasleei azaldu zieten hurrengo diskoaren A aldea euskaraz izango zela. Irakasle «interesgarri eta euskarazale amorratuak» zituztela azaldu du Muguruzak, eta haiek erantzun zietela: «Baina, zer dela-eta alde bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz? Egin dena euskaraz!». Anaiek arrazoia eman zieten irakasleei, eta 1987ko azaroa, abendua eta 1988ko urtarrila eta otsaila Tolosako barnetegian pasa zituzten. «Lau hilabete horietan bilakatu ginen AEK-ko beteteranoak».

Euskara barneratzen

Tolosako barnetegian *Kolpez kolpe* diskoko kantuak prestatzen ari zirela, Muguruzari okurritu zitzaion ikasten ari

ziren atsotitzak *AEK-ko beteteranoak* abestian sartzea. Beraien bizipen pertsonalak eta hainbat pasadizo ere jaso zituzten letra horietan, esate baterako, aste osoa Tolosan igaro ondoren, Moskuko Aranaztarra tabernara joaten zirela ostiraletan, eta bertako jabe Bixenterekin egoten zirela: abestiaren lehen esaldia da *Kaixo Bixente! Hementxe gaude, zu jarrita eta ni tente*.

Muguruzak azaldu du «txorakeriak» zirela letraren zati asko, baina euskara praktikatzeko baliagarriak zirela adierazi du. Garai haiek «oso politak» izan zirela du gogoan musikari eta zinema zuzendariak, «gure lagunak ere aldi berean ikasten ari zirelako euskaraz». Gero, 1992an, Oskorriren 13 diskoko *Euskaldun berriaren baladak* kantuarekin *AEK-ko beteteranoak* abestiari segida eman zitzaiola azaldu du harro Fermin Muguruzak. Ziur, egunotan maiz entzuten dela abesti hori Irunen.



EGUZKITZA HLHI

baikara



PROIEKTUETAN
OINARRITUTAKO
HEZKUNTZA ESKAINTZA
BERRIZTATZAILEA
ETA INTEGRATZAILEA



Victoriano Juaristi, 1. IRUN 20304. Tel.: 943 89 91 61. E-posta: 013372aa@hezkuntza.net • www.eguzkitza.hezkuntza.net

Papergabeko baina euskaradun

Egoera irregularrean dauden pertsonen euskara ikasteko eskubidea aldarrikatu dute Korrika Kulturalaren testuinguruan. Egun, halako egoeran diren zazpi ikasle daude Oarsoaldeko AEK euskaltegietan.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRETERIA-ORERETA

Euskal Herrian egoera irregularrean dauden pertsonen euskara ikasteko eskubidea aldarrikatzen duen *Paperezko bizi-tzak* adierazpena egin zuten publiko AEK-k eta Irungo Harrera Sareak joan den otsailaren 16an. *Hizkuntzak mugarik gabe* nazio ekitaldian egin zuten adierazpen hori, paperik gabeko pertsonen euskara ikasteko eskubidea erdigunean jarri, eta botere publikoei eskubide hori bermatzeko eskatzeko, herritarrei ezagutza doan eskainiz. «Inor kanpoan utziko ez duen konpromisoa» eskatu zuten.

Ekitaldi horretan jakinarazi zuten euskara ikasteko eskubiderik ez dutenen kopurua hazten ari dela urtez urte, eta aldarrikatu inor ez dela ilegala: «Eskubide guztiak denontzat dira, eta existitzen ez denak ezinezko du gainontzeko herritarroi zor zaiguna eskatzea». Errealitate horri erantzuteko eta aldarrikapenetik ekintzetara jauzia eginda, egoera irregularrean dauden ikasleei eskolak ematen hasi da AEK.

Egoera irregularrean diren zazpi ikasle ari dira gaur egun Oarsoaldeko AEKren

euskaltegietan, eta horietako bi dira Abi eta Viole [abizenik ez dute eman]. Paperik gabeko pertsonak dira, Erreteria-Oreteretan bizi dira, eta berehala erabaki zuten bertako komunitateko parte izateko oinarritzkoa zutela komunitatearen hizkuntza, euskara, ezagutzea. Erabaki eta egin. Xenpelar AEK euskaltegian ari dira biak, oinarritzko mailan, euskararekin lehen hartu-emanak egiten.

Kolonbia eta Hondurastik etorriak

2022ko irailaren 8an iritsi zen Viole Euskal Herrira; Kolonbiakoa da eta 48 urte ditu. Abi, 2023ko irailaren 7an heldu zen Euskal Herrira. Honduraskoa da bera, eta 19 urte ditu. «Bikotekidearen bidez izan nuen euskararen berri —azaldu du Violek—. Kolonbiatik deitzen nion, eta iritsi aurretik banekien hemen euskaraz hitz egiten zela. Hitz batzuk esaten zizkidan berak, ez asko. Eskolan ikasi zuen dakien gutxia, eta hona etorri nintzenerako ezagutzen nuen dagoeneko hitzen bat. Administrazio kudeaketa ikasketak egiten hasi nintzen, eta orduan erabaki nuen euskara ikastea».

Aitortu du kostatzen egin zitzaizkion euskara ikasteko leku egokia aurkitzea. «Batean eta bestean galdetu eta inork ez zidan argibide askorik ematen. Internet bidez hasi nintzen bilaketa egiten, eta hor



Violek eta Abik joan den urrian ekin zioten euskara ikasteari, Oreretako Xenpelar AEK euskaltegian.

Ikerne Zarate

«Bertan bizi gara, hau da gure komunitatea, eta uste dut oso garrantzitsua dela euskara ikastea»

Viole

Euskara ikaslea

«Entzuten nuen 'agur', 'eskerrik asko'... Ulertu ez eta atentzioa ematen zidaten hitz solteak»

Abi

Euskara ikaslea



azaldu zitzaidan AEK; horrela iritsi nintzen euskaltegira, Xenpelar AEKra, zehazki. 2023ko otsailean eman nuen izena, baina ikasturtea hasita zegoenez, kurtso berrian izena emateko aholkatu zidaten, eta hala egin nuen».

Hizkuntza «arrotz» bat entzun zuen hona iritsi zenean Abik. «Entzuten nituen *agur, eskerrik asko...* Ulertu ez eta atentzioa ematen zidaten hitz solteak. Amak esan zidan orduan hemen euskara izena zuen hizkuntza hitz egiten zela. Anai-arreba txikiak ditut, haiek hemen

eskolaratuak daude ni iritsi aurretik, eta haien bila joandakoan ere entzuten nuen euskara eskola inguruan. Amak ikasi nahi ote nuen galdetuta, berehala esan nion baietz, ez nuen zalantzarik izan. Xenpelar AEKra deitu eta pasa den urrian hasi nintzen ni ere».

Ikasketa prozesuarekin, pozik

Ikasketa prozesuarekin pozik daude biak. Violerentzat ikaragarritzko urratsa izan da komertzioen kanpoaldean edota autobus geltokietan ikusitako hitzetako

askoren esanahia ulertzea: «Gauza gehiago identifikatzen ditut, eta zirrara sortzen dit horrek, prozesua oso produktiboa izaten ari da». Iritzi berekoa da Abi: «Oso pozik ari naiz, oso gustura ikasten. Hizkuntza berri bat, bertakoa, ezagutzearekin batera, jende berria ere ezagutzen ari naiz. Ikaragarri ederra da hizkuntza berri bat ezagutzeko aukera izatea, hizkuntza horrek berak aukera berrietarako atea zabaltzen dizkigulako». Argi dute biek. «Euskara ikasteak komunitatearen parte izan eta sentitze-ko aukera eman digu».

Harago doa Viole. «Jende askok pentsa dezake soilik Euskal Herrirako balio duela euskarak, hemendik ateraz gero ez duela ezertarako balio, eta orduan ez duela merezi ikasteak. Gu bertan bizi gara, hau da gure ingurunea, gure komunitatea, eta uste dut oso garrantzitsua dela euskara ikastea». Aurretik aipatu duen ideia berari erreparatu dio Abik, «euskarak leiho berriak irekitzen dizkigu, eta oro har aukerak zabaldu».

Ikasteko gogoia, gakoa

Euskara hizkuntza zaila dela oso zabaldua dago. Zailtasunak zailtasun, gakoa gogoia dela uste dute bi ikasleek. «Aitor-tu behar da aditzak zailak direla, korapilatzen den hitzen bat ere bada; hala ere dena prozesu bat da. Poliki-poliki zentzua hartzen du denak, eta urrian ez genekizkien gauza ugari ikasi ditugu hila-bete gutxi batzuetan».

Abirentzat hasiera erraza izan zen: «Erraza iruditu zitzaidan hizkuntza, baina orain zailtzen ari zait aditzekin».

TELLERI-ALDE IKASTETXEA
COLEGIO SAGRADO CORAZON
 Hermanos del Sagrado Corazón



TELLERI-ALDE

**Bihotzarekin,
HARRO HERRI!**

- 2 - 16 urte
- Hirueledun
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Jangela (bertan prestatutako janaria)
- Haurtzaindegia 07:30etik 09:00etara
- Mendi taldea • Eskola kirola • Sputnik aisialdi taldea

Bittor Idiazabal, 1 20100 Erreterria (Gipuzkoa). Tel.: 943 51 12 33 . Faxe: 943 51 20 95 . www.tellerialde.com

Hala ere, «nahi izatea» dela ikasteko akuilurik onena sinistuta daude: «Hizkuntza denek dute bere zailtasuna, ingelesak, frantsesak, alemanerak... Euskarak ere bai, noski. Ikasteko nahia da osagairik garrantzitsuena. Interesa baduzu, egingarria da».

Oraintxe gai dira bi ikasleak euren buroa aurkeztu, nongoak diren edo zenbat urte dituzten euskaraz esateko, baita kallean irakurtzen eta entzuten dituzten hitz asko ulertzeko ere, «satisfazio handia da, eta hasieran genuen ikasteko go-go biderkatu egiten du. Askok ikasten ari gara».

Euskal komunitatearen bihotzean

Euskaltegian hasi direnetik euskara gertuago dute, esku-eskura, eta euskal komunitatearen bihotzean ere sartu dira. Azken horrek, euskal komunitateak, «zorutzen» duela aitortu du Violek: «Ikaragarri gustatzen zait zuen artean euskaraz hitz egiten entzutea eta orduan pentsatzen dut noiz ahalko dudana horrela hitz egin, noiz hartuko dudana hala-

«Ikasteko nahia da osagairik garrantzitsuena. Interesa baduzu, egingarria da»

Viole

Euskara ikaslea

«Hizkuntza ederra da euskara, eta bizitzan aukera berriak zabaltzeko gakoa»

Abi

Euskara ikaslea

ko jarria. Euskal hiztunek hitz egiteko doinu ederra duzue, eta desiratzen nago ni ere hala hitz egiten hasteko».

Anai-arrebekin eta ingurukoekin komunikatzeko tresna da euskara Abirentzat, eta etorkizunera begira jarrita, lanerako tresna ere izatea nahi du: «Nire

anai-arrebak urtebete zutela iritsi ziren hona, eta euskaraz egiten dute. Badut, beraz, mintzapraktika egiteko aukera». Violek, berriz, ikasitakoa bikotekidearekin partekatzen du gauero, bien artean errutina batzuk sortzeko euskaraz: «Lagunekin ere partekatzen ditut ikasten ditudanak unean-unean». Ikasitakoa praktikara eramatea garrantzitsua dela dio. «Nik egunerokora eraman ditut euskaltegian ikasitakoak, eta egun on, arratsalde on, kaixo, agur edota eskerrik asko nire errutinaren parte bihurtu ditut, nahiz eta batzuetan gertatu zaidan egun on edo arratsalde on esan, eta inork ez erantzutea».

Euskal Herria, euskal komunitatea, eta euskara berria dute, baita Korrika ere. Euskararen alde egiten den lasterketa herrikoi handia dela badakite, baina inoiz ez dute bizi, aurten izango dute sortzen duen zirrara bertatik bertara sumatzeko aukera, eta horretarako ere gogotsu daude biak: «Oso gauza ederra dela iruditzen zaigu. Ez dakit zenbat korri egingo dugun, baina bertan izango gara hilaren 23an herritik pasatzen den momentuan».

Astean lautan eskolak

Ikasitako hitz bat aukeratzeko eskatuta, berehala bota du Abik bere kuttunena, «haizea». Violek zerrenda luzeagoa egin du, «atsegina, berritsua, bikote, polita, ados, mesedez... Eta asko-askotan errepikatzen dugun ez dakit [barrezka]». Astelehenetik ostegunera hartzen dituzte eskolak Abik eta Violek, bi orduz eguneko; arratsaldez ari da Viole eta goizeko

taldean, berriz, Abi. Esfortzua suposatu die urratsa egitea, eta eskoletara joatea, zalantzarik gabe. Baina deia egin diete euskaraz ez dakiten pertsoneri ikasketa prozesuan murgil daitezen. Izan ere, Violerentzat, garrantzitsua da euskara ikastea: «Nire ingurukoak motibatzen ditut, animatzen ditut euskara ikastera, lehen esan dudan moduan, bizi garen komunitatearen hizkuntza da, eta ezinbestekoa iruditzen zait ikastea».

Horren harira, aipamena egin die Xenpelar AEK-ko irakasleei eta esker ona azaldu: «Irakasleak ikaragarriak dira, pazientzia handia dute eta eskertzekoa da duten jarrera. Gure ikasketa prozesuaren parte garrantzitsua dira, finean. Beraiek dira ikasi dugunaren, egunero ikasten ari garenaren arrazoietako bat».

Abik ere euskara ikastera animatu du bere egoeran dagoen jendea; haren ustez, euskara eta aukerak eskutik helduta datoz, estu-estu: «Hizkuntza ederra da euskara, eta bizitzan aukera berriak zabaltzeko gakoa». ✕



2022an iritsi zen Errenteria-Oreretara Viole, eta 2023an Abi. I. Zarate

23.korrika
HARROI ERRI

Errenteriako euskal eskola publikoa
Korrikarekin bat

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ
HARROI

Bizavain
ikastola
HH-LH 943-36 14 45 BHI 943-89 94 13

Cristobal Gamon HH
943-89 91 38

Cristobal Gamon BHI
943-89 94 41

KOLDO MITXELENA
Herri Ikastetxea
943-89 91 07

KOLDO MITXELENA BHI
943-89 95 00



«Euskararen erabilera sustatzea dugu erronka nagusia»

Ander Elozegi

Irun

Nik ezin izan dut aspaldian parte hartu, beti tokatu zait kanpoan egoitea. Hala ere, beti da hunkigarria ikustea herri oso bat nola mobilizatu den modu honetan, herritik bertatik jaio den inizatiba honekin.

Euskaldunon altxortxoia da euskara eta honelako ekintzek erakusten dute oraindik oso bizirik dagoela, nahiz eta, hark zioen bezala, batzuetan oso nekeza den euskaldun izatea. Aldarrikapenez gain ospakizun handia da Korrika.

Aurten irundarrontzako edizio berezia da gainera, bertatik aterako baita. Bertan egongo gara denak.




«Orain gazteoi tokatzen zaigu euskararen lekukoa jaso eta eramatea»

Urko Iridoy

Hondarribia

Ez dut gogoratzen parte hartu ez dudana Korrikarik. Betidanik hartu izan dut aireportua aldean, eta herriari itzulia eman ondoren, bertan utzi berriro ere. Azkarra da Hondarribian ematen duen itzulia, baina denbora eta kilometro nahiko dira lagunekin batera momentuaz gozatzeko. Momentu berezi eta bakarra da.

Festa sortzen du Korrikak, furgonetak dioen bezala «euskararen aldeko» festa. Ezin dut ahaztu 2022ko apirilaren 9a, non igandeko 02:00tan iritsi zen Korrika Hondarribira, eta hori aprobetxatuz, larunbat gauean, kontzertuak antolatu zituzten Kasino Zaharrean. Ezta Alamedan Korrika txalapartaren doinuekin jasotzen zenekoa ere. Milaka eskuetatik pasa da lekukoa, baina orain, guri tokatzen zaigu, gazteei, euskararen lekukoa jaso eta harrotasunez eramatea. Horregatik, Korrikak hazten jarraitu behar du, eta «euskararen alde» korrika egiten dugun moduan «euskararen alde» bizi beharko genuke ere.



«Falta diren egunak kontatzen ditut, beti nago noiz iritsiko zain»

Ilargi Arrizabalaga

Lezo

Korrika bada zerbait oso berezia niretzako. Korrikarako falta diren egunak kontatzen ditut beti, beti nago noiz iritsiko zain. Txikitari banekien aldarrikapenen bat egiten zela Korrikan, zerbait bazegoela, baina kontzientzia politikoa hartu nuenetik badakit oso beharrezkoa eta garrantzitsua dela euskararentzat, are gehiago hizkuntzaren egoera ikusita.

Txikitako oroitzapen politikak ditut. Amarekin jaitsi nintzen Lezotik gauez pasatu zen batean, eta Oreretaraino iritsi ginen. Ez zuen sakelako telefonorik hartu eta orduan ez zegoen Whatsappik. Niretzako gau batean ateratzea kristoren abentura izan zen, korri egitera ateratzea.

Lezotik Oreretarako zentzuan baldin bada, Lezon harrapatu eta haraino joaten naiz. Alderantziz bada, Oretetan hasten naiz, eta Lezon gelditu. Bi herrietan bizitzea gustuko dut; Lezokoa naiz, baina familia eta kuadrilla Oretetan ditut, eta bi herrien artean ibiltzen naiz.

Zer da
Korrika
zuretzat



CIFP – BLAS DE LEZO – BHII

OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

Blas de Lezo

HARRO HERRI

Emari izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70
blasdelezo@postoi.eskola.net




«Hotzean pentsatuta, erokeria kolektibo zoragarria da Korrika»

Iker Vidal

Pasaia

Korrika oso gauza berezia da, hunkigarria. Euskara aldarrikatzeko eta gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia pizteko Euskal Herrian egiten den festa edo manifestazio jendetsuena da Korrika. 10 egunez eta gelditu gabe, adin guztietako milaka eta milaka herritarrek korrika parte hartzen dute. Irakurri nuen hunkigarria dela pentsatzea edozein ordutan, nonbaiten, zoro zoragarri batzuk euskararen alde korrika dabiltzala. Hotzean pentsatuta, erokeria kolektibo zoragarri bat da Korrika. Dena den, nahiago genuke korrika ibili beharrik ez izatea. Horrek esan nahiko luke euskararen ezagutza eta erabilera normalizatuta egongo lirakekeela, baina errealitatea ez da hori.

Antxon lagunekin parte hartzea gustatzen zait. Zein ordutan pasako den eta kontrolatuta edukitzea gustuko dut parte hartzeko. Bukarako festara gerturatzea ere gustatzen zait, aukera badut. Azkena Donostian bukatu zen, eta zoragarria izan zen.



«Euskara galtzea kezkatzen gaituenak indarberritzen gaitu»

Jone Arruti

Errenteria-Orereta

Saiatzen naiz, pasatzen den momentuan, ateratzen, batez ere udaletxe inguruan. Bai ala bai atera behar naiz. Korrikan indar bat dabil, Xabier Amurizaren bertsoen esaldiak zioen moduan, eta indar hori transmititu egiten du.

Ez dakit jendeak zein punturaino jakingo duen Korrika zer den, baina bai lortzen du jende guztia indar horretara batzea. Eta aurretik, Korrika Kulturala dago; asko nabaritzen da hori. AEK-koen lan militante hori gabe ez dago horrelako zerbait ateratzerik. Euskara ez dago toki guztietan berdin, baina Korrikak lotzen gaitu denok. Euskara galtzeak hainbeste kezkatzen gaituenok indarberritu egiten gaitu. Nazio bat garela transmititzen duen egitura gutxietakoa da. Izugarria da ikustea jendeak nola egiten duen bat. Orain dela urte batzuekin alderatuta ezberdin ikusten dut. Kanpotik etorritako jendea asko lotzen da horretara, euskara ikasten ari direnak, polita da.



«Kultura-sormen iraultza bat ematen da ekitaldi bakoitzean»

Izaskun Madariaga

Oiartzun

76 urte ditut eta modu batera edo bestera Korrika guztiak bizitu ditut, bidean nahiz helmugan. Ez dut ezer berezirik esango Korrikak zirrara, miresmena, harrotasuna edo konpromisoa suposatzen dizkidala esaterakoan. Euskaraz bizi nahi dugunon arrimoan aurrera egiteko indarra ematen duen ekintza bat da. Kultura-sormen iraultza bat ematen da ekitaldi bakoitzean, urtez urte euskal kulturaren altxorra gehituz.

Duela bi urteko ekitaldia berezia izan zen, zuzenean jarraitzeko aukera izan genuelako, eta horrek areagotu zuen dena. Gure inguruan jende uholdea biltzen gara eta zirrargarria da. Baina hori ezin da konparatu elurretan eta eremu isolatuen barrera gaez korrika ikusi genituenen ahalginekin eta furgonetakoen animoekin jende heroikoa haiek bultzatzea. Buf! Oraindik ere hunkitzen naiz. Ezin dut deus aurreratu, baina aurtengo edizioa niretzat oso berezia izango dela esan dezaket.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

harro! herri!

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

www.goieko.com



23. Korrikak Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu zuen urtarrilaren 25ean Hondarribiko Itsas Etxean. KORRIKA

Azterketak euskaraz egiteko eskubidea omendu du Korrikak

Korrikak Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu zuen urtarrilaren 25ean Hondarribian. Lander Garrok talde horren berri ematen duen 'Oihaletxea' dokumentala zuzendu du Korrikarako.

MIKEL DEL VAL ERRETERIA-ORERETA

Lander Garro idazle eta dokumentalista oreretarra da. Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioko guraso ere bada, eta lehen pertsona bizi du euskarak Ipar Euskal Herrian jasaten duen bazterkeria egoera. Bere ibilbide profesionalean hainbat lan gauzatu ditu, eta bere azken zeregina 23. Korrikarako propio sortu duen dokumental bat da, *Oihaletxea* izenekoa. Dokumentalean Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektiboaren berri eman du, eta AEKren Youtube kanalean dago ikusgai.

Kolektibo horretan sakondu aurretik, komeni da han bizi duten egoera testuinguruan kokatzea. Seaskako ikasleek D ereduan, hau da, euskaraz, gauzatzen dute ikasketa prozesu guztia. Frantziako Estatuan badira ikasleek derrigor egin behar dituzten bi azterketa: Brebeta eta Baxoa. Brebeta DBH3 bukatuta egiten duten froga da, eta Hego Euskal Herrian ez du baliokiderik. Baxoa, aldez, Batxilergoa bukatzean ikasleek pasa behar duten azterketa da, hegoaldeko selektibitatearen parekoa.

Ipar Euskal Herriko ikasle horiek ikasketa prozesu osoa euskara hutsean egiten badute ere, azterketa horiek frantsesez egitera behartuak daude. Ikasge-



lan ez dute frantsesa erabiltzen, baina beren etorkizunerako funtsezkoak diren azterketa horiek frantsesez egitera derrigortuak daude; gainera, azterketa batek sortzen duen urduritasunarekin. Garrok jakinarazi du Brebetarekin «gorabeherak» izan direla, batzuetan utzi izan baitiete azterketa hori euskaraz egiten, baina Baxoarekin Frantziako administrazioak «inoiz» amore eman ez duela nabarmendu du.

Proba horiek erabiltzen ez duten hizkuntza batean egitea «inpaktu handiegia» denez, ikasleek azken ikasturtean «trebakuntza fase» moduko bat pasatzen dutela zehaztu du, azterketara egokitzeke. «Alegia, azken ikasturte hori erabat baldintzatzen du azken azterketa horren hizkuntzak», esan du Garrok.

Azterketak Euskaraz proba horiek euskaraz egitea aldarrikatzen duen kolektiboa da. Talde hori Seaskako ikasleek, irakasleek eta gurasoek osatzen dute. Garrok adierazi du beren egitekoa dela «antolatzea» eta «protesta» egitea, Frantziako administrazioa «ahalik eta gehien» presionatzeko eta baldintzatzeko, helburu argi batekin: azterketa horiek euskaraz egiteko eskubidea izatea. Talde independente eta autonomo gisa sortu arte, eta ikastolek gauzatzen zuten egun arte Azterketak Euskaraz kolektiboak daraman borroka. Momentu batean, ikastolak politikoki presioa egiteko «erreminta nahikorik» gabe geratu zirela esan du Garrok, eta Azterketak Euskaraz taldeak ikastolen mugimenduari «ekintzak egiteko aukera» ematen diola zehaztu du.

Prozesua, bertatik bertara

Dokumentalista oreretarrak Korrikarako propio sortu du *Oihaletxea*, AEKren enkarguz. Dokumentaleko protagonistak Seaskako ikasleak, irakasleak eta gurasoak dira; batez ere ikasleak, haiek baitira «protagonista naturalak», haiei eragiten die bereziki arazoak. Oreretarrak lekukotzen bidez jaso ditu protagonisten ahotsak, egoera esplikatzeke eta tesuingurua kokatzeko. Garrok Azterketak Euskaraz taldearen «existitzeko arrazoia» kontatu du. Zuzendariak bertatik bertara» erakutsi du zein den egoera,

«oso garrantzitsua» iruditzen baitzaio «*in situ*» egotea eta gertatzen ari den hori momentuan kontatzea.

Garrok bi premisa izan ditu kontuan dokumentala egituratzeko garaian: zer den azterketa egitea, eta zer den mobilizatzea. Alde batetik, ikasleekin batera izan zen Baionan azterketaren egunean. Bestetik, ikasleek bizikleta martxa bat egin zuten Bordenetik Baionara, eta Garro haiekin izan zen, haiekin konpartitu zuen mobilizazioa. «Bertatik bertara dokumentatu dut zein den arazoa eta zer egiten duten, eta nola antolatzen diren arazo horri aurre egiteko».

Dokumentalistak argi du «adar askoko» arazoa dela honakoa, arazo politiko eta administratiboa baita, ikasleez harago doana, «inposizio politiko bat» delako. Hala ere, Garrorentzat interesgarria izan da ikasleak izatea protagonistak, haiek baitira «biktimak», eta mobilizazioetan inplikatzeko direnak.

Garro pozik da azken emaitzarekin. Adierazi du erabateko askatasuna izan

duela dokumentala sortzeko. AEKren eskutik joan bada ere, bere irizpideak eta «instintuak» jarraitu ahal izan ditu.

Korrika, taldearen bozgorailu

Azterketak Euskaraz kolektiboaren eta Korrikaren aldarrikapena bera dela esan daiteke: euskara. 23. Korrikak, gainera, Azterketak Euskaraz taldea omendu zuen Hondarribiko Itsas Etxean urtarri-laren 25ean, eta Korrika haien «bozgorailu» izango dela ziur da Garro.

Horrez gain, oreretarrak aipatu du bere ustez Hego Euskal Herrian «utzi-keria» eta «ezjakintasuna» daudela iparraldean bizi duten egoerarekiko. Garrok azaldu du hegoaldean jendeak badakiela Ipar Euskal Herrian «arazoak» dituztela euskararekin, baina askotan arazoaren azalean gelditzen direla. Hori dela eta, Korrikak Seaskako ikastolei haien egoera hobeto esplikatzeke aukera emango diela baietsi du: «Taldeari hegoaldeko gizartean dagoen iragazgaiztasuna haus-tereko aukera emango dio Korrikak». ✕

ERIK GARTZIA EGAÑA OIARTZUN

Kondairak dio trena ez dela Oiartzunera iristen garaiko apaizak hala erabaki zuelako. *Norteko ferrokarrila* plazaraino ez iristeak ziurrenik lotura handiagoa izango du haranak duen orografia malkartsuarekin, eta Donostia eta Irun lotzen dituen bidetik aparte geratzen delako. Bi urtean behin, baina, tren batek zeharkatzen du Oiartzun: tren koloretsua da; bagoi askorekin edo gutxiarekin; aldapen eta meteorologiaren beldur ez duena; eta aldarrikapen bat daramana. Korrika du izena tren horrek.

Korrikaren lokomotorari, baina, bazka eman behar diote suginek, eta pasatzen den herrietan ardura hori dutenak Korrika Batzordeak dira. Maitane Linazasoro Intxixu-AEK euskaltegiko koordinatzailea da, baita Oiartzungo Korrika Batzordekoa ere. Ulertzeko moduan azaldu du zer den: «Bertara hurbiltzen da Korrikan parte hartu nahi duen herritar oro. Batzar irekiak izaten dira, eta bertan, hainbat herritarrek —AEK-ko kideekin batera— Korrika Kulturala eta Korrika pasatzen den egunerako ekitaldiak antolatzen dituzten gune bat da». Abenduan jarri ziren martxan. Orduan idatzi zieten eragile eta norbanakoei; aurretik, Korrika Batzordean parte hartu izan dutenei.

Hamabi bat lagunek hartu dute parte aurtengo batzordean, eta hori «zifra polita» dela uste du Intxixu-AEK-koak. Hori bai, gazteen falta sumatu dute, eta hurrengo ekitaldietarako kontuan hartuko dutela berretsi du. «Konturatu gara oso motibatuta daudela Oiartzunen, eta ideia asko dauzkatela, baina mugatu dira Korrika Gaztera eta Korrika Txikira». Hurrengoan, agian, Korrikaren bi tren txiki horiek egitarau orokorrean sartuko dituztela aurreratu du Linazasorok. «Sorpresa polita hartu dugu gazteekin», gaineratu du.

Trena datorrela iragarri ohi da geltokietan, eta antzeko funtzioa izan dezake Korrika Kulturalak. Lasterketa nagusia iritsi baino aste batzuk lehenago hasten dira ekitaldiekin. «Edukia euskaraz izaten duten ekitaldiak izan ohi dira, eta



Korrika Batzordeak, lokomotoraren suginak

Korrika norberaren herritik pasatzen den momentua hunkigarria izan ohi da. Zitzu batean pasatzen da, baina aurreko ordu eta asteetan girotzen da. Horretaz arduratzen dira Korrika Batzordeak.

Oiartzunen kasuan, eragileek eurek guri eskaintzen dizkigute antolatzen dituzten ekitaldiak Korrika Kulturalaren atarkepean egin daitezten; hori da elkarrekin Korrikari egiten dioten ekarpene-tako bat», esan du Linazasorok. Aurtengo Korrika Kulturalan parte hartzen duten eragileetako batzuk zerrendatu ditu Linazasorok: Izan Inurri elkartekoa, Oiartzungo Udala, Literatura Plazara inizatiba, Soinuenekoak, antzerkizaleak, Oiartzungo Wikiemakumeak...». Hala ere, ekitaldi guztiak ez dituzte ondu AEKtik kanpo dauden eragileek. «Otsailaren 25ean *Badon* ikuskizuna taularatu zen Landetxan. AEK-k Korrika

egiten den aldiro esleitzen du beka bat, eta beka hori lortu zuen *Badon* proiektuak. Otsailaren 29an, berriz, *Bizkarsoro* filma eman zen toki berean», gogorarazi du Linazasorok. Bertso-poteoa ere antolatu dute, gaur zortzirako. Korrika pasatuko den egunaren bezperarako, alegia. Landetxeko tabernan geratuko dira, 18:00etan, eta plaza inguruan ibiliko dira AEK-ko irakasle eta ikasleak, baita hurbildu nahi duten herritar guztiak ere.

Korrikak Oiartzunen «arrakasta handia» duela ziurtatu du Linazasorok, baita «babes zabala» ere, eta parte hartze handia egon ohi dela. «Kuestazioa egin beharrean, tonbola bat egiten dugu. Ko-



2022ko Korrikako irudia. Aurten ere gauez pasatuko da Oiartzundik, baina pixka bat lehenago, hilaren 24ko lehen minutuetan. HITZA

mertzioetara joaten gara, eta ez dugu dirua eskatzen, baizik eta zerbitzua, edo eman dezaketena. Otorduak, tabernetan tragoak, ile-apaindegietako ile-mozketa, masajisten saioa...». Oparien maila ikusita, oiartzuar askok jokutzen dute tonbola horretan.

Ekitaldi gehiago

Korrika iritsi baino lehenago —aurreko ostiralean, orokorrean— Korrika Txikia eta Gaztea antolatu ohi dituzte. Horiek gaur zortzi izango dira. Lehenengoa, kronologikoki, Korrika Txikia izango da: 15:00etan hasiko da, eta ibilbide bat jarraituko dute txikiek. Bukatzean, askaria emango diete, eta DBHko ikasleek azoka solidarioa jarriko dute. 17:30ean, berriz, eskolaz kanpoko ekintzetan ikasitakoen erakustaldia egingo dute.

Gazteak aurten ere «animatu» direla gaineratu du, eta haiek apainduko dute Done Eztebe plaza eta inguruak pankartekin. 18:30ean Korrika Gaztea hasiko da. Iragarri dutenez, eragileek mezu

bana idatzi dute, eta hori bukatzean irakurriko dituzte. 21:00etan, pintxopotea hasiko da, Biyurrieneak antolatuta.

Linazasorok aitortu du Korrika pasatuko den eguneko egitaraua oraindik ez dutela guztiz finkatuta. Hala ere, ideia nagusiak zeintzuk izango diren jakinarazi du. «Eguerdian, Oidultz eta mutxikokak plazan eta inguruetan izango ditugu. 13:00etan, berriz, lekukoa eramango dutenen argazki ofiziala egingo dugu kontzejupean». Arratsaldekoa lotzen ari direla esan du. Haurrentzako ekintzak izango dira 17:00ak aldera, eta 19:00etan hasiko dira kontzertuak. 22:30ean Dj Txillardegik girotuko ditu plaza eta inguruak. Beroketaren ondoren, Korrika harrapatuko dute —bretoiek ez dute hutsik egingo, Oiartzun-Karaez batzordeari esker—, eta pasatzean, disko-jartzailak berririo eragingo die plateri. Aurten, gainera, estreinakoz pasatuko dira Aritxulegitik, eta «sorpresa» egongo da. Ez da Korrikaren trena geldiaraziko duen maldarik. X


 OIARTZUNGO UDALA
IKASI EUSKARA DOAN B2 maila arte!

Informazioa Oiartzungo Udaleko
 Hizkuntz-normalizazio sailean:
 Telefonoa: 943 493 842
 E-maila: euskara@oiartzun.eus



lazko Martxoaren 8koa irudia, gazteen manifestazioarena Errearterian. I. Zarate

Egun askoko olatu moreari jarraipena emateko eguna

Gaur, Emakumeen Eguna. Herri guztietan antolatu dituzte mobilizazioak. Oarsoaldean ez da eskualdeko manifestaziorik egingo, bai, ordea, Bidasoan. Asteburuan jarduerak jarraipena izango dute.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Herrietako espazio publikoek, kaleek bereziki, jasoko dituzte berriz ere Martxoaren 8ko ahotsak. 2023ko azaroaren 30eko greba feminista orokorraren oihartzuna oraindik ere presente dagoen honetan, Emakumeen Eguna iritsi da. Gaur da. Zaintza sistema publikoa eta indarkeria matxista desagerrarazteko al-

daketa sakonak aldarrikatuko dituzte gaurko manifestazioetan. Greba ez baitzen egun batera soilik mugatutako aldarraroa izan. Halaber, Palestinako emakumei elkartasuna eta maitasuna helaraziko diete.

Ahalduntzetik eta espazioak irabaztetik helduko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, patriarkatua erasiteko armarik eraginkorrenak horiek baitira. Horrek saretze ahalegin handia es-

M8ko ASTEBURUKO EGITARAUAK

HONDARRIBIA

Gaur (ostirala). 11:00etan, Martxoak 8 plazan, *Hondarribian emakume sarea osatzen* jarduera; 17:30ean, Martxoak 8 plazatik, Bidasoko manifestazioaren hasiera.

Bihar (larunbata). 10:00etatik, Jostaldi pilotalekuan, Bixi Bixi Pala Txapelketa; 19:00etan Itsas Etxean, *Nepaldada* dokumentala.

Etzi (igandea). 19:00etan, Itsas Etxean, *La mirada oculta* dokumentala.

IRUN

Gaur. 12:00etan, San Juan plazan, udalak deitutako elkarretaratzea; 18:15ean (Santiago), 18:30ean (Mendelun) eta 19:00etan (Zabaltza plazan), eskualdeko manifestaziora batzeko aukera; 20:00etan, Urdanibia plazan, Itaiaren elkarretaratzea. Gazteleketutako, elkarte jakinen barruko eta adineko zentroetako egitarauak ikusteko joan bidaso.a.hitzza.eus webgunera.

katzen du. Bide hori egin beharrekoa dela jakitun, Martxoaren 8an ere horri begirako orotariko jarduerak proposatu dituzte herri guztietan.

Nabarmentzekoa da ariketa fisikoko eta kirol kutsuko dezente daudela, emakumeen ahalduntzean kirolak eta elkarrekin duen garrantziaren jakitun.

Mobilizazioak

Martxo osorako ekitaldiak eta jarduerak antolatu dituzte tokian tokiko elkargune feministek. Horietatik garrantzitsuenak gaur egingo dituzte, kale presentzia masiboa eskatuko duten martxak egingo baitituzte herri guztietan. Ostirala izanik, manifestazio askok beste ekintza osagarri batzuekin jarraipena izango dute, eta biharko nahiz etzirako ere badaude egunari lotutakoak.

Oarsoaldean ez da mobilizazio zentralik izango. Goizean, Ikamak deitutako manifestazioak gazte mugimendua batzeko bokazioa izango du, eta arratsaldean herriko antolatu dira martxak. Bidasoan bai egingo dutela manifestazio bateratua, Hondarribian hasita. ✕



Bihar. 17:00etan, Urdanibian, emakume sortzaileen azoka; 19:30ean, Amaia KZn, *Y la música se hizo mujer* saioa.

Etzi. 10:030ean, Zabaltza plazan, Familia Lilatoia; 17:00etan eta 19:30ean, Emakumeen Etxean, *Nora* filma.

ERRETERIA-ORERETA

Gaur. 12:00etan, Herriko Plazatik, Ika-mak deitutako manifestazioa; 14:00etan, Merkatuzarren, emakumeen bazkaria; 19:00etan, Herriko Plazatik, Oreretako Asanblada Feministak deitutako manifestazioa.

Bihar. 12:00etan, gaztetxean, Intzirako kideekin mahai-ingurua; 12:00etan, Emakumeen Etxean, Mariasun Landa lehiaketaren sari emate ekitaldia; 14:00etan, gaztetxean, bazkaria eta bingo musikatua; 17:00etan, gaztetxean, genero

disidentziari buruzko hitzaldia; 19:00etan, Arkaitza tabernan, Arkahitzak bertso saio berezia (xehetasunak oarsoaldea.hitza.eus webgunean); 19:00etan, Niessenen, *Victoria viene a cenar* antzerkia; gauean, Arkaitzan, LiatuGarete DJa.

Etzi. 12:30ean, Emakumeen Etxean, Udal Txistulari Taldearen kontzertu berezia.

LEZO

Gaur. 19:00etan, Gurutze Santuaren plazan hasi eta Karlos Saldiseraino, manifestazioa eta ekitaldia.

Bihar. 10:00, ibilketa nordikoko emakume taldearen irteera plazatik, eta 10:30ean, Emakumeen Korrikalari Taldearen irteera; 11:30ean, Goiko Plazan, Emaion harri tiraketa taldearen erakustaldia; 14:00etan, Ibai Ondon, bertso bazkaria (xehetasunak oarsoaldea.hitza.eus webgunean); 19:30ean, Koldobike Gezala Pilota Txapelketaren finala Koldobike Gezala pilotalekuan.

OIARTZUN

Gaur. 18:30ean, Done Eztebe plazatik hasita, manifestazioa; 21:30ean, Girizia elkartearen, bertso afaria (xehetasunak oarsoaldea.hitza.eus webgunean).

PASAI

Gaur. 12:00etan, Trintxerpeko Gudarien plazan, emakumeen entzute aktibo taldearen bilkura; 19:00etan, Biteri plazatik, Antxoko manifestazioa; 19:00etan, Gernika plazatik, Trintxerpeko manifestazioa.

Bihar. 09:00etan, Donibaneko herriguneko kirolgunean, autodefentsa feministar tailerra; 14:00etan, Donibaneko Bixi Bixi elkartearen, bertso bazkaria (xehetasunak oarsoaldea.hitza.eus webgunean).

Etzi. 12:30ean, Donibaneko Santiago plazan, *Pasaia* emakumeen borroka omenduz Pasaia osoko ekitaldia (plazaranzko martxa 12:00etan aterako da Meipitik).

Egin zaitez Korrika laguntzailea

APPa deskargatu

EKIN KORRIKARI!
15 euroren truke, garrantziatsuenen lortuko duzu. AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pira eta abantailei buruzko informazioa jasoko dituzu.

23.korrika

HARRO HERRI

Irundik Balonarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Urtzi Urkizu 'Txoria hodei artean' liburuarekin, Donostiako Elkarren atarian. M. Del Val

EITBren lau hamarkadako ibilbidea jaso du Urtzi Urkizuk

Kazetari lezoarrak EITBren iragana eta etorkizuna jorratzen dituen liburua idatzi du: 'Txoria hodei artean. ETB lehen eta gero'. Euskal ikus-entzunezko edukien inguruko hausnarketa ere sustatu nahi du.

MIKEL DEL VAL LEZO

EITBk berrogei urteko ibilbidea osatu du, eta Urtzi Urkizu kazetari lezoarrak Euskal Irrati Telebista publikoak lau hamarkada horietan izandako ibilbidea jaso du *Txoria hodei artean*. *ETB lehen eta gero* liburuan. EITBren hastapenak azaldu ditu, baita gaur egun kate publikoak dituen erronkak ere. Iraganaz eta etorkizunaz mintzatu da. Dokumentazio lan handia egin du Urkizuk, eta, batez ere, 35 aritu eta adituri egindako elkarrizketetan oinarritu da liburua gorpuzteko. «Haiei esker idatzi ahal izan dut liburua», esan du idazleak. Asteazkenean aurkeztu zuen Urkizuk bere lana Donostiako Elkarren egoitzan, Martin Anso liburuaren editoreetako batekin, lepo bete zen aretoan.

Urkizu ikus-entzunezko gaietan espezializatuta dagoen kazetaria da, eta *Berría* egunkarian bideratzen du bere eguneroko jarduna. Ikus-entzunezko edukiez hitz egitean, herritarrek «nahitaez» EITBekin topo egiten dutela nabarmendu zuen Ansok, «euskal ikus-entzunezkoen ekosisteman EITB delako ardatza edo burua». Ansok adierazi zuen *Txoria hodei artean* liburua ez dela informazio, oroitzapen edo iritzi bilketa hutsa; azken urteetan euskal gizartean gailendu den kezka bat jaso baitu Urkizuk liburuan: «EITBk, lehen urteetan, euskararen normalizazioari egin zion ekarpena berebizikoa izan zen; baina gaur egun behar bezala erantzuten al die euskal komunitatearen beharrei?».



Liburua osatzen duten 188 orrialdeetan galdera horren inguruan gogoeta egiteko materiala dagoela zehaztu zuen Ansok, eta harentzat, gogoeta hori «ezinbestekoa» da galdera horri ematen zaion erantzunaren arabera «erabaki estrategikoak» hartzeko; adibidez, ETB1 eta ETB2ren arteko desoreka, gobernantza eredu, bikoizketen politika edota adimen artifiziala. Galdera horren gaineko gogoeta eta eztabaida «begien bistakoak» direla iritzi du Ansok, eta horiek sustatzeko eta gai horretan sakontzeko, *Txorria hodei artean* liburua tresna «bikaina» dela nabarmendu zuen liburuaren editoreak. Hitzaurrea Itziar Ituño aktoreak idatzi du, eta galdera horren harira gogoeta ere egin du, bere esperientzia pertsonala baliatuta.

Lehen kazetaritza liburua

Honakoa da Urkizuk idatzi duen lehen kazetaritza liburua. Literaturan bi liburu zituen aurrez argitaratuta, baina *Txorria hodei artean* izan da bere ogibidearekin

lotura zuzena duen lehen lana. «Oso berezia da niretzat argitaratuta ikustea», baietsi zuen.

Lehen ataletan EITBren lehen urteetako pausoak jaso ditu, protagonisten ahotsekin. Horien artean, kate publikoaren sorreran parte hartu zuten profesional batzuen ikuspuntuak jaso ditu: Martin Ibarbia, Luis Mendizabal, Luis Alberto Aranberri *Amatiño* eta Iñaki Agirregomoskortarenak. Haiei eskerrak eman zizkien aurkezpenean Urkizuk: «Euskal Herriko gizarteak jakin dezala zuei eta beste askori esker hasi zuela Euskal Telebistak bidea 1983an».

Aurrez aipatu bezala, kazetari lezoarrak 35 pertsonen testigantzekin mamitu du liburua. Elkarrizketa horiek iazko martxotik urrira bitartean egindakoak dira, eta lekukotasun horiek baliatu ditu gaiak lantzeko. Tarteka hemerotekara ere jo duela onartu zuen idazleak. «Euskal Telebistari, txoriari eta inguruko hodeiei» ertz ezberdinetatik heldu nahi izan die Urkizuk. Honakoak dira landu

dituen gaiak: euskara eta gaztelania ETB1en eta ETB2n; kontrol politikoa eta kontrol organoak (zentsura kasuen salaketak ageri dira azpiatal batean); albiste-giak; bikoizketa; telesailak; zinema; ekoiztetxeak; entretenimendua; ikusle datuak; Primeran plataforma; adimen artifiziala; eta ETBk nora jo beharko lukeen.

Etorkizunari begira, Garazi Goia adi-tuaren ekarpena nabarmendu zuen lezoarrak. Goia Europako telebista publiko garrantzitsuenen aholkulari da. Hona hemen bere gogoeta: «Hizkuntza gutxitu bat dugun aldetik, horrek lan bikoitza eskatzen du. ETB1en eta ETB2n indar bera jartzen bada, gizarteak duen eragina ez da bera. Esfortzua eta indar handiagoa eskatzen du euskarak. Jatorritik ez bada ahalegin hori egiten eta ez bazaio ETB1 kateari proportzionalki indar handiagoa ematen, eragina murriztuz joaten da. Tamalez, telebistak ez du egin euskarak behar zuen adinako esfortzua behar zuen eragina lortzeko». ✕

Ayerdi Motor

SALMENTA, MEKANIKA ETA KARROZERIA

Ongi etorri
KORRIKA!





SEAT



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK






INSTALAZIOAK:

Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO
Tel. : 943344525 - ayerdimotor@ayerdimotor.com



www.ayerdimotor.com

GUTUNAK

Arazoa polizia bera denean

Herriko poliziaren ongizate emozionalak eta hauen lanarekin herritarrok dugun iritziarekin kezkatuta omen dago Oiartzungo Udala, eta hau lantzeko prozesu herritarra abiatuko du. Miseriak eta gerrak gurutzatutako garaiotan, bake soziala mantendu eta haien posizioei eusteko ahaleginean bat egin dute enpresari handi eta alderdi instituzional guztiek. Horren adibide dira estatuek sakondutako erreforma autoritaria edo kontrol sozialaren areagotzea. Zigor Kodearen gogortzeak, aurrekontu militarren gorakadak, Guardia Zibilari eta Polizia Nazionalari bideratutako aurrekontuen gorakadak, pandemia garaiko salbuespen-egoerak... markatu ditu azken urteak.

Bitartean, bestelako polizia eredu bat posible dela diote batzuek. «Gertuko» polizia euskaldunaren errelatoa saldu nahi dute, «polizia demokratikoaren» kimera, herritarrengandik hurbil dena. Argi izan behar du gu poliziaren existentzia bera justifikatzen duen arrazoi bakarra ordena sozial kapitalista mantentzea dela, honen aurka altxatzen dena zapaltzea, langileria egunerokoan jazaru eta biolentziaren monopolioa duenez, estatu kapitalistaren defentsa armatua aurrera eramatea.

Polizia ereduaz hitz egiten da, funtzioa ezkutuan mantentzen den bitartean. Izan ere, hauteskundeek markatutako hilabeteotan instituzioek kudeaketan jarri nahi dute fokua, bi kudeaketa eredu kontrajarriz, eta ordena burgesa zein eratan mantendu eztabaidatuta. Horrela, ordena bera zalantzan jarri gabe.

Bake soziala mantentzeko saiakeran, herriaren zerbitzura egongo den poliziaren antzepea jarri dute oraingoan taula gainean (ikastetxe aurreetan trafikoa bideratzen duena, herriko eraikin publikoetako ateak itxi eta irekitzen dituen, galdutako objektuak aurkitzen dituen... eta irribarretsu eta euskaraz gainera!). Horrela polizia zuritu eta normalizatzeko ahaleginean, kontrol soziala bera leuntzen da, mozorro-tu, antzepea gatazkarik gabeko herri bakesku batean kokatuz eta estatuari beharrezkoa zaion kasuetan gogortasun osoz kolpatuko gaituela ahaztuz.

Beraz, has gaitetzen askatasun zibil eta politikoak defendatu eta kontrol-soziala borrokatzen. Gazte langileok asko dugu jokoan. Arazoa ez baita polizia eredu bat ala beste, arazoa polizia bera baita

Iker Urritegi Getaria. [Oiartzun](#)

Euskarazko komunikabideen egoeraren aurrean

[Erredakzioan laburtutako testua da]

Euskal komunikabideak baldintza zailetan sortu ziren. Ez ziren jaio etekinak ematen dituzten enpresak izateko bokazioarekin, aitzitik, Euskal Herriaren hizkuntza, kultura, izana eta balore demokratikoak babestu eta indartzeko helburu nagusiarekin jaio ziren. Oraingo aldaketa teknologikoek, sozialek eta generazionalak birsortzera eramango gaituzte. Izan ere, egotea ez da nahikoa, proiektu komunikatiboak edukitzea ez da nahikoa, garai berrietara egokitu beharra dago eta horrek sortze garaian egindako

ahaleginen parekoak eskatuko dizkigu. Iraungo badugu komunikabide eraginkorrak, kalitatezkoak, anitzak, modernoak, herritarrekin harreman estua dutenak, gure kulturari ongi errotuak, euskara ardatz dutenak, teknologikoki ongi garatuak, lantalde profesional formatuak dituztenak, eta egoki kudeatuak behar ditugu.

Erronka hau ez da euskal komunikabideena bakarrik, erakunde publikoei ere bada-gokie. Korporazio mediatiko handien eragin homogenizatzailearen aurrean, Euskal Herriak bere izana du jokoan eta ondorioz aurrean duguna herri mailako erronka da. Gure izana, kultura, hizkuntza eta balore demokratikoak dira arriskuan egongo direnak ez badugu berezko sare mediatiko anitza, ongi errotua eta euskalduna indartzea lortzen. Euskal komunikabideek badakite eraldaketa prozesu sakonek zailtasunak eta erresistentziak dakartzatela, baina sortze garaiko ilusio berberak harrapatuta gauzka eta prest gaude gara erronkari ekiteko.

Era berean, administrazioentzat iritzi aniztasuna eta informazio eskubidea bermatzea oinarritzko zeregina da, demokraziaren oinarritzko zutabeak baitira. Alde bakoarreko informazioa bakarrik ahalbidetzen duen sistema politikoak ez du demokrazia bermatzen eta zeregin horretan komunikabide libreen sustapena baztertu ezinezko zeregina da administrazioentzat, bai eta monopolio informatiboak mugak ezartzea ere. Tokian tokiko proiektu mediatiko indartsuak eta eraginkorrak sustatzea ere bada administrazioen zeregina.

Hekimen, euskal hedabideen elkarte.

[HITZA Hekimenen barruan dago.](#)

Nola irudikatzen dute txikienek KORRIKA?

Bidal ditzatela marrazkiak eta sari ederren zozketan parte hartuko dute!

**MARRAZKI GUZTIAK
GURE WEBGUNEETAN
IKUSGAI
EGONGO DIRA**

23.korrika

MARRAZKI

SARIKETA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA-n



Epea: otsailaren 22tik, martxoaren 12ra arte.

OINARRIAK:

oarsoaldea.hitza.eus/korrikako-marrazki-sariketa-2024/

bidasoa.hitza.eus/korrikako-marrazki-sariketa-2024/



SARIAK

- 1. saria: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen produktuen sorta** (Katxiporreta)
- 2. saria: 'Irati' komikia eta 'Anna Kopek'-en liburua** (Erein argitaletxea)
- 3. saria: Motxila borobila eta koloreztatzeko produktuen sorta** (Urrats liburudenda)
- 4. saria: Ipuin eta koloreztatzeko produktuen sorta** (Mirentxu liburu denda)
- 5. saria: Ipuin eta koloreztatzeko produktuen sorta** (Mirentxu liburu denda)
- 6. saria: Ipuin eta koloreztatzeko produktuen sorta** (Mirentxu liburu denda)
- 7. saria: Euskal Itsaslapurren koloreztatzeko koaderno eta bi karta-joko historiko** (Trikuharri Elkartea)



Uxue Kriado Korrika Kulturalaren aurkezpen ekitaldian. Ane Mendizabal

«Egoerari buelta emateko aukera eta indarra badago»

UXUE KRIADO HONDARRIBIKO KORRIKA BATZORDEKO KIDEA

2023ko abenduan bildu zen aurrenekoz Hondarribiko Korrika Batzordea, besteak beste, Korrika Kulturalako ekintzak antolatzeko. Herriko gazteek, bestetik, Korrika Gaztea antolatu dute lehenengoz.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Korrika Irunen hasteak Hondarribian ere eragina izan duela azaldu zenuen Korrika Kulturalaren aurkezpenean. Espe-ro al zenuten horrelako erantzunik?

Bai. Hasiera batetik espero genuen horrelako erantzuna. Korrika Irunen hasiko zela iragarri zenetik eragileak hasi ziren gurekin kontaktuan jartzen kilometroak erosteko. Korrika Batzordeari dagokionez, esango nuke beste urtetan urtarrilean hasi garela biltzen. Aurten abenduan bildu ginen aurrenekoz eta

jende askok parte hartu zuen. Bi herri ezberdin dira, baina azkenean Irunek eta Hondarribiak duten loturarekin bagenekien nabaritutako zela.

Antolakuntzari dagokionez, Korrika Kulturala prestatzerako orduan, zertan sumatu duzue aldea, eta nolakoak izan dira hilabete hauek?

Hasteko azpimarratuko nuke udalaren aldetik jaso dugun laguntza. Lehenengo urtea da hasiera-hasieratik diru partida bat bideratzen dena Korrikaren antolakuntzarako. Eta prestatetari dagokionez intentsoa izan da. Iaz bildu ginen lehenengo aldiz eta hasieratik sortu zen tal-

detxo bat Korrika Kulturala antolatzeko. Lehenengo batzordea egin eta hurrengo egunean jada bazeuden ideia asko mahai gainean. Bilerak hasiera-hasieratik bi estetik behin jarri genituen, eta denak beharrezkoak izan dira.

Hemezortzi eragilek erosi dituzte kilometroak. Konpromiso handia dagoela adierazten al du horrek?

Bai. Hondarribian beti nabaritu izan da konpromisoa eragileen aldetik. Beti batestu izan da Korrika nola edo hala, kilometroa erosten, batzordeetan parte hartzen... Baina aurten bereziki nabaritu dugu babesa, kilometroak erosterakoan eragile gehiagoren artean banatu behar izan ditugulako. Orduan, kilometro erreala... ez dakit zenbat korrituko dugun bakoitzak, baina metro gutxi izango dira [barrez].

Aurten gazteen inplikazioa nabarmentzekoa izan da. AEK-ko kide bezala zer iradokitzen dizu horrek?

AEK-ko kide naizen aldetik ilusioa eragiten dit horrek, baina batez ere hondarribiar gisa. Izan ere, Hondarribian ditugun datuak ikusita eta euskararen erabilera zein egoeran dagoen ikusita, gazteek parte hartu nahi izatea eta Korrika Gaztea beraiek antolatzea edo prentsaurrekoan hitz egiteko prest egotea ilusioa pizten dit, eta erakusten dit indarra badagoela. Egoera dena da, daukaguna da, baina buelta emateko aukera eta indarra gazteen aldetik badago.

Korrika Kulturalako lehen bi ekintzak gauzatu dira, eta bihar izango da azkena, DRAGaldia ikuskizuna (22:00etan Psilocybenea aretoan). Zer edo zer arrera dezakezu?

Bi ekintzek oso harrera ona izan zuten. Liburuaren aurkezpenetik jendea oso kontent atera zen eta antzerkia, haur eta familientzako antzezlanak izan zenez, inguruan entzun dudana gatik haurrei asko gustatu zitzaion. Drag ikuskizunari dagokionez badakit sorpresaz beterik egongo dela. Artistekin kontaktuan egon gara etengabe. Albina Stardustek eta Divina Comediak showa elkarrekin egiten dute normalean, eta Garazy la Fantasyk eta Alicia Kissek ere bai. Baina larunbaterako [biharko] bi ikuskizunak lotzeko asmoa dute. ✕



BASQUE TEAM

Andy Criere, Olinpiar Jokoetara

Otsailaren 23tik hilaren 3ra bitartean jokatu da ISA World Surfing Games txapelketa Arecibon, Puerto Rico. Txapelketa Pariseko Olinpiar Jokoetara sailkatzeko azken aukera zen, eta horri zukua ateratzen jakin du Andy Crierek. Zortzigarren sailkatu eta Parisko Olinpiar Jokoetarako txartela lortu du. Teahupo'o'n (Tahiti) egingo dituzte Parisko Olinpiar Jokoetako surf probak.

Amua Festibalaren II. edizioa, martxan

Amua Festibala musika-film zikloaren lehenengo edizioak izandako arrakastaren ondoren, bigarren ediziorako indarberritu egin dute kultur jarduera. Gaur bertan hasiko da, eta munduan zehar bidaiatuko dute Itsas Etxera bertaratzen direnek. Izan ere, mundu osoko lau film proiektatuko dituzte.

Gaur (hilak 8) 20:00etan Paloma Zapataren *La Singla* dokumentala aurkeztuko dute. Ondoren, apirilaren 19an, Juanma Villar Betancourten *Semilla del son* filma eskainiko dute (20:00). Maiatzaren 10ean, berriz, Lisa Cortesen *Little richard. I'm everything* dokumentala izango da ikusgai. Sarrerak 3 euroan eskura daitezke Arma Plazan edo www.tickets.kutxabank.es-en. Azkenik, ekainaren 7an Susan Shawren *Rao. El pulso de la calle*-rekin bukatuko dute ikus-entzunezkoen festibala. Kasu horretan sarrera librea izango da.



Asier Perez Karkamo

Errefuxiatuentzako janari bilketa

Hondarribiko zein Irungo eskola gehienek Zaporeak elkartera bideratzeko janari bilketa martxan jarriko dute, eta Talaia eskola da horietako bat. Hilaren 13etik 15era bitarte, hiru egunez, eskolan bertan egingo dute bilketa. Gainera, errefuxiatuen gaia eskolan landu eta proiektuak erakusketara eramango dituzte hilaren 12tik 17ra bitarte. Horiek Arma Plazan izango dira ikusgai.



HITZAren KORRIKAKO lekukoa ANE BELTRAN ERRANDONEA harpidedunak eramango du!

Martxoaren 14an 16:49an Hondarribiko Sabin Arana Goiri kalean, Egiluze ikastetxe parean



Otaegi erdian, Lemos eta Gartziairekin, astelehenean Bilboko delegaritzan. HERRI BIZIA

Konpromiso zehatzik ez du hartu Osasun sailburuak Iztietarako

Aizpea Otaegi alkateak, eta Bernar Lemos eta Maite Gartzia zinegotziek neurri zehatzak eskatu dizkiote Gotzone Sagarduiri. Hark ez du, ordea, konpromiso zehatzik hartu «ahalmenik» ez duela adierazita.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRENTERIA-ORERETA

Iztietako anbulatorioaren egoera larraren aurrean, herritarren eta udalaren beraren kezka Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren mahai gainean jarri zuten astelehenean Aizpea Otaegi alkateak, eta Bernar Lemos eta Maite Gartzia zinegotziek. Neurri zehatzak eskatu zituzten anbulatorioan ezarri-

tako murrizketak leheneratzeko. Ez zuten bilera horretatik konpromiso zehatzik ekarri udal ordezkariak: «Egoera hobetzeko konpromisoak eskatu badizkiogu ere, igorritako gutunean adierazitakoak berretsi ditu bileran Osasun sailburuak, ahalmenik ez duela adierazita».

Urtarrilaren 30eko udalbatzaren ohiko bilkuran herriko hamaika eragilek Iztietako anbulatorioaren defentsa egiteko mozioa aurkeztu zuten. EAJrena ez beste, alderdi guztien aldeko botoa jaso zuen mozioak. Mozioak jasota zuten Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen zuela arazoa konpontzen lagun zezaketen kudeaketak egiteko, bai eta mozio horretan hartutako erabakiak Eusko Jaurlaritzari eta Osasun sailburuari bidaltzeko. Horri lotuta, bi gutun bidali zizkion Otaegi alkateak Sagarduiri bilera eskaera eginez. Otsailaren 21ean erantzun zion sailburuak alkatearen gutunari—*oarsoaldea.hitza.eus*-en irakur daiteke sailburuaren gutuna osorik—, eta Errenteriako Udalak osoko bilkuran lehen mailako arretaren egoera dela-eta hartutako erabakiaren harira, «gaitzespenik irmoena» adierazi zuen Sagarduik.

Gauzak horrela, anbulatorioiko egoera Osakidetza bakanteak osatzeko martxan diren neurrien menpe gelditzen da. ✕

Aiton Borda ustiatzeko lehiaketa ireki dute

LEZO. Lezoko Udalak jakinarazi du Antonio Pildain kaleko 3. zenbakian dagoen Aiton Borda taberna ustiatzeko eta erretiratuen elkartearen atezaintza lanak egiteko lehiaketa ireki dutela, eta parte hartzeko deia egin diete lezoarrei.

Mikel Arruti alkatearen arabera, Aiton Bordako taberna itxia izan da azken hilabeteetan: «Lehiaketa lehenbailehen martxan jartzeko helburua izan dugu gobernuan sartu ginenetik, adineko pertsonentzat elkargune bikaina baita».

Lehiaketan izena emateko baldintzak eta egin beharreko lanen informazioa jasotzeko Lezoko Udalaren webgunera (*lezo.eus*) joan behar dute interesdunek. Bestela, *gizartezerbitzuak@lezo.eus* helbidera ere idatz daiteke argibide eske, baita 943 52 10 94ra hots egin ere.

Lezoar gehiagoren bila ari da Trapujale Taldea

LEZO. Inauteriak pasata, haien inguruko balorazioa egin du Lezoko Trapujale Taldeak. Lehenik eta behin, esker hitzak izan dituzte Lezoko herriarentzako, antolakuntza lanetan izan diren pertsonentzako eta ekitaldietan parte hartu duten herritar guztientzako. Eguraldia lagun izan ez zuten arren, animazioak Lezoko kaleetan presentzia izan zuelako «pozik» dira taldekideak.

Horrez gain, bi ohar helarazi dizkiete lezoarrei, oso kontuan hartzekoak biak. Alde batetik, herritarrei gogorarazi diete urte oso bat dutela aurretik Trapujale arropak prestatzeko, eta beraz, datorren urteko inauterietan jende gehiago nahi dute Trapujalez jantzita. Bestetik, lezoarrei taldekide izateko deia luzatu diete: «Datorren urtean antzezleak, ideia berriak eta laguntzaile gehiago behar ditugu taldean. Animatu!».

Trapujale taldeak orain 37 urte hasi zuen ibilbidea Lezoko inauterietan eragiteko, baita helburua bete ere. Herritarrei luzatutako elkarlanerako eskaeraren bidez, beste horrenbeste egin nahi ditzutela argi adierazi dute.

Diru gehiago lokal hutsak mobilizatzeko

ERRETERIA-ORERETA. Duela bi urte Erreteriako Udala tokiko jarduera ekonomikoa sustatzeko lokal hutsen mobilizaziorako diru laguntzak ematen hasi zen. 2022an, bi urterako 200.000 euroko aurrekontua adostu zuten, baina eskaerak etengabean gora egin dutela ikusita, 290.000 eurora zabaldu du aurrekontu hori. Diru laguntzak Merkataritza Planaren barruan daude jasota, eta hasieratik hainbat helbururi erantzun diete.

Hala nola, hiriko ekonomia sarean negozio berriak jartzeko, orain artean errentagarriak izan diren negozioei jarraipena emateko, lokalak zein merkataritza gune hutsak mobilizatzeko, eta kaltetik zuzeneko sarbiderik ez duten instalazioetan dauden negozioei kaleko irteera emateko balio izan dute.

Orotara, 36 lokal mobilizatu dituzte horrela: hogei lokal berri ireki dira, hamar negozio jaitsi dituzte kale mailara, eta sei lokal baliatu dituzte negozioen transmisiorako. Onuradunek gehienez ere 9.500 euro jaso ditzakete lokal hutsaren prestaketa eta mobilizaziorako, alokairu edo erosketarako, edo beste hainbat aldagaien arabera —euskarazko arreta bermatzea eta emakumeen parte hartzea sustatzea, besteak beste—.

Aurrerantzean programak jarraipena izango du. Izan ere, 125.000 euro bideratuko dira 2024ko deialdira. Maiatzean irekiko dute.

Egiteke diren auzo batzarrak, ekainean

ERRETERIA-ORERETA. Ekainera atzeratu ditu Erreteriako Udalak egiteko falta diren auzo batzarrak. Hauteskunde legea medio, eta udalaren zerbitzu juridikoekin kontrastea eginda, hartu du erabakia gobernu taldeak. Eusko Legebiltzarrerako eta Europako hauteskundeak pasata izango dira auzo batzar horiek, legeak ezarritako mugak aintzat hartuta. Hortaz, aurrerago jakinaraziko dituzte Galtzaraborda, Fanderia, Erdialdea, Iztieta-Ondartxo eta Alabergako bileren data berriak.

Talentua eta lanaren zentzia, euskaraz

OARSOALDEA. Ingurua eta ingurukoak kontuan hartzen dituen ekonomia inklusiboa da enpatikonomia. «Jarduera ekonomikoaren inguruko pertsonen eta errealitatearen zaintza negoziarako aldagaien artean sartzen ditu. Haiekiko enpatiaz eta ez apatiaz jarduten duena da ekonomia enpatikoa. Gure inguruko pertsonak eta errealitatea ongi egoteak eta ongi sentitzeak, gure negozioan eragin positiboa izango du, dudarik gabe», azaldu du Oarsoaldea Garapen Agentziak. Horri jarraiki, Enpatikonomia izeneko jardunaldia antolatu du, laugarrenez, hilaren 15erako eskualdeko garapen agentziak.

Oiartzungo Zinealdeak jasoko du topaketa, eta interbentzio den-denak euskaraz izango dira. 09:00etan hasiko dira jardunaldiaren barruko hizketaldiak, Joana Mendiburu Oiartzungo alkatearen sarreraren hitzaldiarekin. Ondoren hainbat mahai-inguru, hitzaldi eta proposamen izango dira (egitarau osoa: oarsoaldea.hitzza.eus-en). Ekitaldiaren bukaeran, aitorza egingo zaie lantokian euskarari sarbidea egin dioten Oarsoaldeko en-



Urko Ekexbeste

presei, eta oroigarri bat emango diete. Hala, Bai Euskarari, Harrobi edo Bikain ziurtagiriak dituzten enpresak aitortuko dituzte.

Laugarren Enpatikonomia topaketaren helburua egungo enpresa panoraman talentuaren erronka aztertzea eta eztabaidatzea izango dela argitu du Oarsoaldea Garapen Agentziak: «Talentua bilatzeak eta atxikitzeak dakartzen erronkei aurre egiten lagunduko diguten ezagutzak, esperientziak eta estrategiak partekatzeak aukera izango da, profesionalen testigantzak izango ditugu horretarako, eta inspirazio gisa balioko digute».

Parte hartzeko izena eman behar da, oarsoaldea.eus-en. Bertan bete ahalko da, halaber, hara joatekoak direnentzat prestatu duten galdetegia.




EROSKI
Lezo

Ttipi-ttapa KORRIKA!

Donibane Kalea, 7. 20100 Lezo

Tel.: 943 06 49 66

OARSOALDEA



HITZA

Etxebizitza tasatuetan izena eman daiteke jada

OIARTZUN. Altzibarren etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektua aurrera doa. Oiartzungo Udalak iragarri berri duenez, hilabetea hastearekin batera zabaldu da etxebizitza horietan izena emateko epea. Hala, Agerrealde eta Aduriz artean egingo dituzten hamabi etxebizitza tasatuen zozketan sartu nahi dutenek apirilaren 15era arte izango dute eskaerak aurkezteko epea. Bina logelako bost etxebizitza (70 metro koadro ingurukoak); hiruna gelako sei (87 metro koadrokoak) eta izaera iraunkorreko desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako beste bat izango dira. Garajea eta trastelekua izango dute denek.

Udaletxeko harreraren aurkeztu daitezke eskaerak, edo erregistro elektronikoko bidez. Udalak gogorarazi duenez, kasu gehienetan, eskaera orriaz gain ez da beste dokumenturik aurkeztu behar. Izan ere, udalak egingo ditu sektore publikoko entitateekin beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak.

Baldintza guztiak eta informazio gehiago, oarsoaldea.hitza.eus-en.



Asteazkenean sartu zen indarrean neurri berria. HITZA

Mugi txartela erabil daiteke jada Pasaiaiko motoran

Joan den asteazkenetik Mugi txartelarekin ordaindu ahal izan dira Donibane eta San Pedro arteko bidaiak. Teo Alberro alkatearen arabera, neurri honekin «eskaera historiko bati» erantzun diote.

URKO ETXEBESTE PASAIA

Asteazkenetik, Mugi txartelarekin ordain daitezke San Pedro eta Donibane (eta alderantziz) batzen dituen motorako bidaiak: 0,48 eurokoa izango da bidaiako prezioa (orain artekoa 1,10 eurokoa zen), hiri barruko autobus publikoek dutena, alegia. Asteartean iragarri zuten neurria Pasaiaiko alkate Teo Alberrok eta Gipuzkoako Mugikortasun diputatu Azahara Dominguezek, bakoitzak bere aldetik. Alkatearentzat «pasaitarren eskaera historiko bat» erantzuna izan da horrela. Dominguezentzat, berriz, beste urrats bat izan da «estatuan aitzindaria eta erreferentziazkoa izango den tarifa sistema bat izan dezagun gipuzkoar guztiok».

Xehetasunei begira, tarifa murriztuaz gain, 6 urtetik beherako erabiltzaileek doan izango dituzte ontziko bidaiak. Aurretik jakina zen bezala, bizikletak barruti batetik bestera motoran eramateagatik ez da txartelik or-

daindu behar. Gainera, motoran txartela erabili ondoren Mugi barruko beste garraibide publiko bat erabiltzen bada, doakoa izango da lotura edo trasbordoa. Hartara, gainerako garraibideetan aplikatzen zaizkien deskontu eta hobariak ere probestu ahalko dituzte ontzi zerbitzuaren erabiltzaileek, baldin eta ordainketa Mugirekin egiten badute: urtean 100.000 erabiltzailek baliatzen dute motoraren zerbitzua.

Mikel Garcia Pasaiaiko Udaleko Mugikortasun zinegotziak nabarmendu du neurri horri esker pasaitarren eguneroko mugikortasuna hobetuko dela, «eta hainbestetan eskatu dugun intermodalitatea ahalbidetuko da». Mugikortasun iraunkorraren bidean urrats sendoa egin dela uste du Garciak, eta Mugik inplizitu dituen onura ekonomikoak goretzi ditu.

Hasiera batez Gipuzkoako Garraio Agintaritzak eta zerbitzua kudeatzen duen Itsas Zerbi enpresak lau urterako akordioa izenpetu dute, zortzi urtera luza daitekeena. ✕

Txile, aurtengo ohorezko gonbidatua

PASAIA. Pasaia Itsas Festibalaren hirugarren ekitaldirako ia dena prest du udalak. Maiatzaren 9tik 12ra egingo da aurtengoa, eta dagoeneko eman dituzte zertzeladatxo batzuk. Aste honetan jakinarazi dutenez, Txile izango da ohorezko gonbidatua.

Hala, aurtengo ekitaldian, Txilek bere itsas kultura ezagutaraziko die Pasaia gerturatzen diren bisitariari. Alde bate-tik, Hego Amerikako itsasoetako musika tradizionalaz gozatzeko aukera eskainiko du festibalak. Akordeoia, ahotsa, gitarra, danborra eta quijada izango dira Txileko musikaren erakusgarri. Bestetik, gastronomia eskaintza zabala ere egongo da. Berritasun gisa, Txileko ordezkarri batzuk Pasaian izango dira festibalaren aurretik. Zehazki, Albaola Itsas Kultur Faktorian gauzatuko dute beren egitekoa: ontzi txiletar txiki bat eraikiko dute.

Egitaraua itxi ez badute ere, orain arte lotutako ekitaldiak kontsulta daitezke oarsoaldea.hitza.eus-en.



HITZA

Udalekuetan izena eman daiteke jada

OIARTZUN. Gaur zabaldu dute Oiartzungo udalekuetan izena emateko epea. Udalak jakinarazi duenez, haurren gurasoek hilaren 24ra arte izango dute horretarako denbora: gazteoiartzun.net-era idatzi beharko da izena emateko.

Uztailaren 1etik 30era bitartean izango dira udalekuak, eta HH3tik LH6ra bitarteko hurrei daude zuzenduta. 400 toki eskainiko dituzte guztira Abaraxka eta udalaren udaleku horietan. Hamabostaldietako bat edo biak aukera daitezke.

Emakumeen Binakako Txapelketa, etzi

OIARTZUN. Igandean Ados enpresak antolatzen duen esku huskako Binakako Txapelketako partida jokatu dute Madalesoron. Gerriko gorria jantziko dutenak Andrea Aldaregia latasarra eta Olatz Ruiz de Larramendi eulatearra izango dira. Nafarrek arerio izango dituzte Goiuri Zabaleta leitzarria —hamalau urte besterik ez ditu— eta Irati Zabala lizartzarra.

Partida 12:00etan hasiko dute. Sarre-rak 5 euroan jarriko dituzte salgai, Oiartzungo pilotalekuko txarteldegian. Aurretik —11:00etan hasita— Oiartzungo pilota eskolako hurrek partidak jokatu dituzte.

Bertaratu ezin dutenentzako txapelketaren jarraipena Ados enpresaren sare sozialetan egin ahalko da.



HITZA

Goi mailako lau kontzertu Antxon

PASAIA. Etzi (igandea) Antxoko Musika Astearen aurtengo edizioari ekingo diote. Orotara lau kontzertu eskainiko dituzte abesbatzek, eta ganbera orkestra zein haize talde banak emanak. Antxoko San Fermin eliza eta Biteri plazako pilotalekua izango dira agertoki nagusiak.

Lehenengo saioa igandekoa da, Illunbe Musika Bandaren emanaldia. 13:00etan abiatuko dute, Biteriko pilotalekuan, eta Fran Berrak zuzenduko du taldea. Bigarrena hurrengo larunbatean (hilak 16) izango da, 20:00etan, elizan: emakumez osatutako Aqueam Lauda abesbatzak musika emanaldia eskainiko du. Hirugarrena hilaren 17an (igandea da) izango da, elizan; 19:00etatik aurrera Easo Sinfonietta igoko da oholtzara. Azkenik, zirkloa bukatzeko, Sugaar Ensemble taldeak saioa eskainiko du hilaren 24an (igandea da), 17:00etan, elizan.

Lau kontzertuak doakoak izango direla aurreratu du Pasaia Udalak, aforoa bete arte.



AGENDA

HILAK 8, OSTIRALA

Musika

Pasaia. 21:30ean, Trintxerpeko Mogrambo aretoan, Konptoir Chaos, Protokadaver, eta DBQ taldeak. 6 euro.

Ikus-entzunezkoak

Irun. 18:45ean, CBA liburutegian, Salvador Etxeandia Galen zikloaren barruan *Siete minutos* lana.

Hondarribia. 20:00etan, Itsas Etxean, musika-film zikloaren barruan, *La sin-gla* lana.

HILAK 9, LARUNBATA

Musika

Errenteria-Oreeta. 12:00etan, Herriko Plazatik hasita, Lau Haizetararen kantu jira.

Errenteria-Oreeta. 16:00etan, Andra Mari abesbatzaren egoitzan, IV. Jose Luis Ansorena bekaren barruko lehiaketa.

Pasaia. 22:00etatik, Trintxerpeko Mogrambo aretoan techno gaualdia Danse Musique Rhone Alpes, Uj Bala, eta Zumitrenkorekin. 8 euro.

Oiartzun. Korrika Kulturala: 22:30ean, Landetxen, Hatxeren eta Ibil Bediren kontzertua. 8 euro.

Antzerkia

Pasaia. 19:00etan, Antxoko Kultur Etxean, Jon Plazaolaren *Tu-tum platz!* bakarriketa. 8 euro.

Dantza

Errenteria-Oreeta. 19:00etan, Lekuona Fabrikan, Herri Arte Eskolako dantza ikasleen emanaldia.

Bestelakoak

Errenteria-Oreeta. 09:30etik 13:30era, Lekuona Fabrikan, zinten ehungintza ikastaroa Ana Oliverrekin.

Errenteria-Oreeta. 10:00etan, Lekuona Fabrikan, mahai jolas jarduera irekiak.

Oiartzun. 10:00etan, Done Eztebe eliza ezagutzeko bisita gidatua; 12:00etan, berriz, Arizmendienea eraikina eta ingurua ezagutzekoa.

Errenteria-Oreeta. Korrika Kulturala: 11:30ean, Gamon Zumardian, haur jolas txokoak eta horma-irudi margoketa; 12:30ean, Bizi Bizi zirkuaren emanaldia Kiki eta Koko pailazoekin.

Lezo. Korrika: goizean eta eguerdian, 23. Korrikaren kuestazioa egingo du Oroitzene AEK-k Gurutze Santuaren plazan. Korrikaren materiala ere salduko dute.

Oiartzun. 17:00etan, Ibergain parkeko intxaurrendoa, hildako oiartzuarrak oroitzeko festa.

Hondarribia. Korrika Kulturala: 22:00etan, Psilocybenea aretoan, DRA-Galdia jaialdia.

HILAK 10, IGANDEA

Musika

Oiartzun. 12:00etan, Elizalde auzoan,

TXOKO MOREA



kalaka

musikal herriko
bilgune feminista

Hylé.



- **'EMARIAK' liburua:**
Amaia Arruti Arce eta Arantza Perez Gaztelu
KALAKA: Aholkularitza, diseinua eta formakuntza feminista.
www.kalaka.eus - deskargatu EmariAPP, emakume erreferenteak ezagutzeko jolasa: emariapp.kalaka.eus
- **'GARI ETA GOROLDIOZKO' liburua:**
Ainhoa Alza Errazkin
SUSA argitaletxea. www.susa-literatura.eus
- **'KONTRAKO EZTARRITIK' liburua:**
Mari Oartzabal Etxebeste
SUSA argitaletxea. www.susa-literatura.eus
- **'GORPUTZEN BURUJABETZA' liburuxka:**
Endike Olaziregi Oartzabal
BILGUNE FEMINISTA. www.bilgunefeminista.eus
- **'DENA ALDATZEKO ARI GARA' koaderno:**
Xabier Iradi Lekuona
BILGUNE FEMINISTA. www.bilgunefeminista.eus
- **'NASHA' liburua:** Mailu Irigorri Gaztañaga
IBAZABAL argitaletxea. www.ibazabal.com/eu
- **BELARRITAKO PAREA: Irati Lizaso Berrueta**
HYLE buztinezko belarritakoak. Instagram: @hyle_earrings

Herri Musikaren Txokoko kideen kale-buelta.

Errenteria-Orereta. 12:00etan, Madalenaren basilikan, Afdagi elkarte laguntzako kontzertua Easo Beteranoak koruarekin.

Oiartzun. Korrika Kulturala: 18:00etan, Landetxan, *Anonyme Popular* ikus-entzunezko bertsoen ikuskizuna Igor Elortza bertsolariarekin eta Rafa Rueda musikariarekin. 8 euro.

Irun. 19:00etan, Amaia KZn, Ricardo Requejoren omenezko ganbera musika zikloaren barruan, Urval Ensemble taldea. 5 euro.

.....

Dantza

Errenteria-Orereta. 12:00etan, Herriko Plazan, Beti Prest taldearen eskutik mutxikoak.

Hondarribia. 12:00etan, Damarri plazan, mutxikoak.

Errenteria-Orereta. 18:00etan, Niesenen, Igandeak Dantzan egitasmoaren martxoko saioa.

Bestelakoak

Irun. 11:00etan eta 12:30ean, Txingudi Ekoetxean, *Terminus* izeneko ihes gela.

Irun. 12:00etan, Anakako Florencio Iratxeta plazan, Florencio Iratxeta oroitzeko ekitaldia eta ondoren hitzaldia.

Pasaia. 10:00etan, Donibaneko Alabortzan eta Mater Itsas Museo Ekoaktiboaren eskutik, hango mikroekosistema ezagutzeko saioa.

ERAKUSKETAK

Irun. Kabigorri Ateneoan *Meazuri, argiak eta koloreak. Iraganera bidai* erakusketa zabaldu berri dute. Dark Red Team Argazkilarien Elkarteko kideek Meaka auzoko Meazurin egindako argazkien bilduma da. Ostegunetik larunbatera bisita daiteke, 19:00etatik aurrera.

Irun. Amaia KZn, *Del ring a Hollywood* erakusketa dago zabalik. Shanin Olagibel boxeolari irundarraren bizitzan sakontzeko mostra da. Bihar (larunbata)

19:00etan hasita bisita gidatua egingo dute. Bestelakoan, asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara da zabalik, eta igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era.

Errenteria-Orereta. Xenpelar Etxean, Eskola Feministako kideen lanekin erakusketa dago zabalik, *Arttarikapen feminista* izeneko. Astelehenetik larunbatera izango da zabalik mostra, arratsaldean (17:00etatik 20:00etara).

Errenteria-Orereta. Jantziaren Zentroan, *Lentzeria, emakumeen ezkutuko sekretua* erakusketa paratu dute. Larunbatetan goiz (11:00-14:00) eta arratsaldean (17:00-20:00) zabalik, igande eta jaiegunetan goizez.

Hondarribia. Basque tabernan, Hondarribiko Herri Olinpiaden gaineko argazki erakusketa dago jarrita. Guztira hemezortzi irudi dira, 1986-1996ko, 2014-2017ko eta egungo belaunaldikoak. Argazkiak bi hilabeteko berrituko dituzte eta erakusketa ekainera arte egongo da ikusgai.

IGO GURE KANALERA

OARSO BIDASOKO HITZAK

Telegram kanala martxan jarri du.

Harpidetu eta albiste guztiak jaso egunean!

Telegramen aurkitu gaitzazu:
@obhitza edo
t.me/obhitza

HITZA

HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | |
|------------------------|-----------------------|------------|------------------------|-------------------------|---------------------------|------------------|
| | | Saltzeko ▼ | Madari ▼ | Amaiera ▼ | Otea hazten den tokia ▼ | Ukatzeak ▼ |
| | | Itaunketak | Bizkaiko ibaia | Bokala | Gaixotiak | Emakume izena |
| Jakoben emaztea ▶ | | | | Nafarroako udalerrria ▶ | | |
| Pl., ahalmen fisikoa | | | | Omentzeko ekitaldi | | |
| ◆ Irudiko udalerrria ▼ | Pasabidea ▶ ▼ | | | ▼ | | |
| Nafarroako udalerrria | Arraunlarien lanabesa | | | | | |
| ▶ | | | Poliki, leunki ▶ | | | Potasioa ▶ |
| | | | Jan-edanez bete ▼ | | | Pl., zikin-keria |
| Ahariairen emea ▶ | | | | Zoroak ▶ | | |
| Ez emea | | | | Eguzki | | Edateko |
| ▶ | | | Emaztearen ezkontide ▶ | ▼ | | Musika nota ▶ |
| | | | ... gabe, atertu gabe | | | Ingelesezt, da ▼ |
| Noizean behin ▶ | | | ▼ | | Saudi Arabiako hiriburu ▶ | |
| Herri baxenabartarra | | | | | Noka, da | |
| ▶ | | | Ildo txikia ▶ | | ▼ | |
| | | | Artsenikoa | | | |
| Behizaina ▶ | | | ▼ | Toka, da ▶ | | Argoia ▶ |
| Zintzoak | | | | Bokal biribila | | Uranioa |
| ▶ | | | Sorbaldia ▶ | ▼ | | Hunki ▶ ▼ |

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik 688 77 07 52 zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), denborapasakobh @hitza.eus helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. Epe muga: datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

SUDOKU

1-9 zenbakiak idatziz, bete itzazu 9x9 laukian hutsik dauden gelaxkak, kontuan zanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen ilara eta zutabe berean, ez eta dagokion 3x3 laukian ere.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | 2 | | 6 | | | | |
| | 1 | 3 | 7 | | | | 6 | 2 |
| 9 | | | 5 | | | | | |
| | | | | 7 | 4 | | 5 | |
| | 5 | | | 2 | | | 9 | |
| | 4 | | 9 | 3 | | | | |
| | | | | | 7 | | | 9 |
| 7 | 9 | | | | 6 | 5 | 2 | |
| | | | | 8 | | 1 | | 7 |

MARTXOAK 1eko ASTEKARIKO DENBORAPASEN ERANTZUNAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 5 | 3 | 6 | 4 | 7 | 2 | 8 |
| 2 | 7 | 6 | 9 | 8 | 1 | 5 | 4 | 3 |
| 8 | 4 | 3 | 7 | 5 | 2 | 1 | 9 | 6 |
| 6 | 1 | 9 | 2 | 7 | 8 | 3 | 5 | 4 |
| 7 | 2 | 8 | 5 | 4 | 3 | 6 | 1 | 9 |
| 5 | 3 | 4 | 6 | 1 | 9 | 8 | 7 | 2 |
| 4 | 5 | 2 | 1 | 3 | 6 | 9 | 8 | 7 |
| 3 | 8 | 7 | 4 | 9 | 5 | 2 | 6 | 1 |
| 9 | 6 | 1 | 8 | 2 | 7 | 4 | 3 | 5 |

SUDOKU

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|--|--|--|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | J | | K | | I | | O | | | | | | |
| | | | | P | A | S | A | I | A | | | L | E | Z | | |
| | | | | | | S | A | L | T | Z | A | I | L | E | | |
| | | | | B | | B | A | K | E | A | | S | O | K | A | |
| | | | | N | I | G | A | N | A | T | U | A | K | | O | N |
| | | | | D | E | | E | B | A | N | | E | U | R | I | |
| | | | | B | E | L | T | Z | A | R | A | N | A | K | | A |
| | | | | S | A | M | I | N | | K | A | | U | U | | |
| | | | | T | A | K | | N | A | U | | D | H | I | K | O |
| | | | | R | | K | A | T | R | A | M | I | L | A | K | |
| | | | | Z | I | R | I | K | U | A | | I | L | U | N | A |

HITZ GEZIDUNAK



DENBORA-PASAK



**ASTEKO SARIA
LIBURU SORTA MOREA**

Elkar liburu denda. IRUN.
943 631726 - irun@elkar.eus
www.elkar.eus

**AURREKO ASTEKO SARIDUNA
JOSEBE SOLANA SANCHO**

MAHALAREN PRODUKTUEN SASKIA
Mahala Baserria - LEABURU. info@mahala.eus
www.mahala.eus



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA

61



LEITZARAN FERRATA BIDEA

Lagun batentzat sarrera

(Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 61)

www.leitzaran-andoain.eus

62



LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

(Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 62)

Kontxako pasealekua z/g - DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net

63



DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

(Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 63)

www.aquariumss.com

Zozketan parte hartzeko deitu: 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, martxoaren 18a baino lehen. Saridunen izenak martxoaren 22an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKIDE.....

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidaso.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Orereta)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€

Merkealdia

2mó
89€

lehen 99€
erreflexuen aurkako
betaurreko **graduatuak**

MULTIÓPTICAS

943 14 28 17
Jose M^º Sert 4 - ANTIGUO
DONOSTIA



943 32 66 49
C/ Nueva 15 - GROS
DONOSTIA



eskatu
hitzordua
WhatsApp
bidez



943 51 78 11
Koldo Mitxelena 7
ERRETERIA



943 63 99 01
Mendibil M.G.
IRUN

www.multiopticas.com

